

BESTELAKO XEDAPENAK

LAN ETA ENPLEGU SAILA

1525

EBAZPENA, 2024ko martxoaren 20koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez argitaratzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko landa- eta hiri-inguruneetako emakumeei laguntzeko programa garatzeko laguntzen bigarren deialdia, Europar Batasunaren NextGenerationEU funtsak finantzatutako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak, 2024ko martxoaren 19ko bileran hartutako erabakiaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko landa- eta hiri-inguruneetako emakumeei laguntzeko programa garatzeko dirulaguntzen bigarren deialdia onartu du, Europar Batasunaren NextGenerationEU funtsak finantzatutako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan. Eta, Lanbideren Estatutuen 10.2 artikulua n) letran xedatutakoaren arabera –maiatzaren 22ko 82/2012 Dekretuaren bidez onartu ziren estatutuak–, organismo autonomo horren zuzendari nagusiari dagokio deialdi hori argitaratzea.

Horrenbestez, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Argitara ematea Euskal Autonomia Erkidegoko landa- eta hiri-inguruneetako emakumeei laguntzeko programa garatzeko laguntzen bigarren deialdia, Europar Batasunaren NextGenerationEU funtsak finantzatutako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan; Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak 2024ko martxoaren 19an egindako bileran onartu zuen deialdia, eta ebazpen honen eranskin gisa agertzen da.

Bigarrena.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak laguntza-deialdia onartzeko hartu duen erabakiak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Deialdia onartzen duen Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren Erabakiaren aurka, berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio organo horri berari, hilabeteko epean, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da zuzenean Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, ebazpena aldizkari horretan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko martxoaren 20a.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusia,
FRANCISCO PEDRAZA MORENO.

ERANSKINA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO LANDA- ETA HIRI-INGURUNEETAKO EMAKUMEEI LAGUNTZEKO PROGRAMA GARATZEKO LAGUNTZEN DEIALDIA, EUROPAR BATASUNAREN NEXTGENERATIONEU FUNTSAK FINANTZATUTAKO SUSPERTZE, ERALDATZE ETA ERRESILIENTZIA PLANAREN ESPARRUKOA

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Administrazio Kontseiluak, 2021eko abenduaren 21eko bileran hartutako erabakiaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko landa- eta hiri-inguruneetako emakumeei laguntzeko programa garatzeko laguntzen deialdia onartu zuen, Europar Batasunaren NextGenerationEU funtsak finantzatutako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan. Deialdia 2021eko abenduaren 31ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen, 262. zenbakian, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren 2021eko abenduaren 21eko Ebazpenaren bidez.

Deialdi horretan araututako laguntzak finantzatzeko baliabide ekonomikoak 773.662 euro izan ziren, eta zenbateko hori Estatuak transferitu zuen, deialdia gauzatzeko helburuarekin. 2022. eta 2023. urteetan, diru gehiago transferitu zitzaion Euskal Autonomia Erkidegoari programa hori gauzatzeko -429.812 euro eta 85.962 euro, hurrenez hurren-, eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren 2022ko urriaren 17ko (urriaren 25eko EHAA) eta 2023ko ekainaren 7ko (ekainaren 19ko EHAA) ebazpenen bidez esleitu zitzaizkion programari.

Eskabideak aurkezteko epea 2023ko irailaren 29an amaitu zen, eta eskaera bakarra onartu zen programa honen esparruan. Programan, 1.167.611 euro geratzen dira.

Next Generation EU finantza-tresna 2020ko uztailaren 21ean onetsi zuen Europako Kontseiluak, eta tresna horren ardatza «Suspertze eta Erresilientzia Mekanismo» bat da: mekanismo haren helburua Batasuneko estatuetan inbertsioa eta erreformak bultzatzea da, hartara susperraldi jasangarri eta erresilientea lortzeko, eta, aldi berean, justizia sozialean oinarritutako hainbat erreforma ahalbidetzea, bai maila nazionalean, bai eskumenak transferituak dituzten autonomia-erkidegoko kiko gobernantza partekatuan.

Europako Suspertze Funtseko finantza-baliabideak Ministroen Kontseiluak 2021eko apirilaren 27an onartutako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren bidez gauzatzen dira.

Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren barruko VIII. politika eragilean («Zaintza-lanen eta enplegu-politiken ekonomia berria») 23. osagaia dago: «Lan-merkatu dinamiko, erresiliente eta inklusibo baterako politika publiko berriak»; Laneko eta Gizarte Ekonomiako Ministerioak gidatzen du osagai hori, eta egiturazko erreformak egiteko hark lehenesten dituen ekimen eragileetan Estatu Enplegu Zerbitzu Publikoak hartzen du parte.

Osagai horrek erronka eta helburutzat hartu du Espainiako lan-merkatuaren erreforma bultzatzea, gizarte-elkarriketaren esparruan, gaur egungo errealitatera eta beharretara egokitzeko eta egitura-ahultasunak zuzentzeko, azken batean egiturazko langabezia eta gazteen langabezia murriztu, bitasuna zuzendu, giza kapitala hobetu, negoziazio kolektiboa modernizatu eta enplegu-politika publikoen efizientzia areagotzeko asmoz, gure ekonomiak eskatzen dituen eraldaketei lotutako arloetako langileak gaitzera bideratuko diren enplegu-politika aktiboak bultzatzen diren bitartean.

Osagai horretan proposatutako erreforma eta inbertsioen artean, 2. inbertsioa dago, «Emakumeen enplegua eta genero-zeharkakotasuna enplegurako aktibatze laguntza-politika publikoetan»; horren barruan dago «Landa- eta hiri-inguruneetako emakumeei laguntzeko programa».

Landa- eta hiri-inguruneetako emakumeen prestakuntza hobetzeko berariazko programa hori abian jartzen da. Hobekuntza hori, hasteko, tokiko jarduera ekonomikoan haien parte-hartzea areagotzeko haien kontzientzia zabalduz lortu nahi da. Horretarako prestakuntza-aukerak eskaini behar dira, eta laguntza ere bai, arlo digitalean, teknologikoan, ekintzailertzan eta gizarte-ekonomian, honako hauei lotuta: produktu endogenoak (dimentsio berdea eta tokikoa), baso-, arrantza- eta nekazaritza-ustiapena, online merkataritza-jarduerak eta mendetasunerako laguntza.

Gainera, hiriko bizitza leheneratu beharra dago, biztanleriaren eskariei erantzuteko, bizitza hori kalitatezkoa izatea eskatzen baitu hark; batez ere, eta besteak beste, ekonomia berde, urdin eta zirkularra eta hiri barruko mugikortasuna kontuan hartzeko leheneratu beharra dago. Era berean, landa-ingurunea biziberritzeko, erronka demografikoari heltzeko eta pertsonen bizi- eta lan-kalitatea hobetzeko, neurriak hartzen dira landa-ingurunean emakumeen enplegarritasuna sustatzeko. Horrela lortzen da haien lanbide-aukerak hobetzea eta landa-inguruneari lotutako genero-arrakala murriztea, udalerrri txikiak eta baserrialdeak biziberritzeko lanean funtsezko zeregina betetzea, emakumeen prestakuntza hobetuz eta aukerak sortuz haien talentua finkatzen laguntzea, beste aukera batzuk ikustea eta eskualde horietako garapen ekonomikoa eta soziala sustatzea.

Baserrialdeetako emakumeak lan-mundura sartzeari buruzko datuak oraindik ere Europako batezbestekoaren atzetik daude, egiturazko arrazoi soziodemografikoengatik. Arrazoi horiek urruntzen dituzte emakumeak produkzio-saretik; izan ere, emakumeak familia zaintzeaz, ordaintzen ez diren jardueretan parte hartzeaz edo familia inguruko zereginenez arduratzen dira batez ere, eta ez dute berariazko prestakuntzarik, besteak beste.

Programa horretan, orientabideak, aholkuak eta prestakuntza-jarduerak eskaintzen dituen ibilbide pertsonal eta integratu bat egiten da, parte hartzen duten emakumeen enplegarritasun-profilera egokitua. Emango den prestakuntza lurraldean aukera onak dituzten lanpostuekin lotuta egongo da, programa gauzatzen den landako eta hiriko lan-merkatuaren beharrak kontuan hartuta, eta prestakuntzaren helburua parte-hartzaileen enplegarritasuna areagotzeko eta lan duina lortzeko aukerak gehiagotzeko ezagutza lortzea da, eta, aldi berean, baserrialdeen garapen produktiboa indartzea, genero-arrakalaren aurka borrokatzea eta lurralde horretan emakumeen egoera hobetzea. Programaren % 35, gutxienez, klimarekin zerikusia duten kompetentziekin lotuta dago, eta beste % 35 kompetentzia digitalei buruzkoa da.

Urriaren 11ko TES/1121/2021 Aginduak, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruko «Landa- eta hiri-inguruneetako emakumeei laguntzeko programa» finantzatzeko dirulaguntza publikoak emateko oinarriak ezartzen dituenak, aipatu programa arautzen du eta dirulaguntza publikoen emakida arautzeko oinarriak ezartzen ditu.

«Landa- eta hiri-inguruneetako emakumeei laguntzeko programa» baserrialdeetan eta hiriguneetan bizi diren emakumezkoen prestakuntza hobetzeko da, eta, hala, 2. inbertsioaren helburu estrategikoa lortzen laguntzen du; 2. Inbertsio hori («Emakumeen enplegua eta genero-zeharkakotasuna enplegurako aktibatze laguntza-politika publikoetan») 23. osagaiaren barruan dago («Lan-merkatu dinamiko, erresiliente eta inklusibo baterako politika publiko berriak»), eta hura, berriz, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren barruko VIII. politika eragilearen esparruan («Zaintza-lanen eta enplegu-politiken ekonomia berria»).

Deialdiko aurrekontuaren % 35 eraldaketa ekologikoak laguntzeko jarduerak finantzatzera bideratzen da, «01-Kompetentzia eta enplegu berdeak» etiketarekin (% 100), eta beste % 35 eraldaketa

digitala sustatzeko jarduerak finantzatzera, «108-Gaitasun digitalak garatzeko laguntza (% 100)» etiketarekin.

36/2020 Errege Lege Dekretuak (36/2020 Errege Lege Dekretua, abenduaren 30ekoa, Administrazio publikoa modernizatzeko eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana egikaritzeko presako neurriak onartzen dituena) Europako funtsen bidez finantza daitezkeen dirulaguntzak izapidetzea arindu eta malgutzeko arauak ezartzen ditu. Errege lege-dekretu horren arabera, eta haren 62. artikulua aplikaturik, artikulua horretan ezarritako lehiarik gabeko prozeduraren arabera izapidetuko dira agindu honetako dirulaguntzak, Europako funtsen bidez finantza daitezkeen dirulaguntzak dira eta, azaroaren 17ko 38/2003 Legeak arautzen dituenak, eta, haien helburua beste proposamen batzuekin konparaziorik behar ez duten jarduera konkretuak finantzatzea denez, emakida-ebazpenak eskaerak aurkezteko hurrenkeran emango dira, jarduera diruz laguntzeko modukoa ote den eta gainerako baldintzak betetzen direla egiaztatu ondoren, deialdian esleitutako aurrekontu-kreditua amaitu arte. 20/2023 Legean aurreikusitako ondoz ondoko konkurrentzia-prozedura da (20/2023 Legea, abenduaren 21ekoa, Dirulaguntzen Araubidea arautzen duena).

18/2020 Dekretuak (18/2020 Dekretua, irailaren 6koa, lehendakariarena, zeinaren bitartez Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio sailak sortu, ezabatu eta aldatzen baitira eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen) Lan eta Enplegu Sailari esleitzen dizkio enplegu-politika eta enplegurako lanbide-heziketa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren lankidetzarekin –betiere hark dauzkan erantzukizunen barruan–, hargatik eragotzi gabe oro har Lanbide Heziketaren eremuan zuzendaritza, antolamendu eta plangintzan Hezkuntza Sailak dituen eginkizunak.

Bestalde, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua organismo autonomoa Lan eta Enplegu Sailari atxikita dago, eta organismo hari dagokio, besteak beste, enplegu-programen, enplegurako prestakuntza-programen eta autoenplegua eta enpresen sorkuntza sustatzeko programen kudeaketa. Egiteko horren barruan dago dirulaguntzetarako deialdiak onestea eta izapidetzea, hala ezarrita baitago organismo autonomoaren estatutuen 3.b) artikuluan (maiatzaren 22ko 82/2012 Dekretuaren bidez onetsi ziren estatutu horiek).

Horregatik guztiagatik, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiak proposatuta, organismo autonomo horretako Administrazio Kontseiluak, 2024ko martxoaren 19ko bileran, Euskal Autonomia Erkidegoko landa- eta hiri-inguruneetako emakumeei laguntzeko programa garatzeko dirulaguntzen bigarren deialdia onesten du, Europar Batasunaren NextGenerationEU funtsak finantzatzeko Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren barruan, honela:

1. artikulua.– Xedea.

1.– Deialdi honek «Landa- eta hiri-inguruneetako emakumeei laguntzeko programako» dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileak ezartzen ditu. Ekintza hori Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren 23. osagaiaren barruan dago («Lan-merkatu dinamiko, erresiliente eta inklusibo baterako politika publiko berriak»); zehazki, 02 inbertsioaren barruan («Emakumeen enplegua»); eta CID 343 mugarri eta helburuari laguntzen dio. Horrek ekintzari lotutako helburuak betetzen lagunduko du, Europako eta Estatuko suspertze- eta erresilientzia-mekanismoa eta Suspertze Plana erregulatzen dituen araudiarekin bat etorritz.

2.– Deialdi honen helburua «Landa- eta hiri-inguruneetako emakumeei laguntzeko programako» dirulaguntzak ematea da; programa urriaren 11ko TES/1121/2021 Aginduaren bidez arautu da, Europar Batasunaren NextGenerationEU funtsak finantzatzeko Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren markoan.

Deialdi honetan arautzen diren dirulaguntzen xedea da landa- eta hiri-inguruneetako emakumeei laguntza pertsonalizatua ematea; zehazki, bana-banako honako ibilbide hauetan parte hartzen dutenei ematea: era bateko eta besteko ekintzak konbinatzen dituzten –hala nola lanerako orientatzea, aholku ematea, informatzea, prestatzea, zeharkako kompetentzia eta trebetasunak lortzea, laneratzen laguntzea eta enpleguan laguntzea– eta 3. eta 4. artikuluetako arloetan gaitzea eta laneratzea helburu duten ibilbideak, enplegua lortzean benetako berdintasuna eta bereizkeriarik eza bultzatzen dutenak aldi berean.

3.– Oinarri hauen arabera emandako dirulaguntzak Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren bidez finantzatu dira; mekanismo hori (EB) 2021/241 Erregelamenduak ezarria da ([EB] 2021/241 Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2021eko otsailaren 12koa, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen duena). Europako funtsekin finantza daitezkeen dirulaguntza horiek izapidetzeko eta emateko, 36/2020 Errege Lege Dekretuan aurreikusitakoa aplikatuko da (36/2020 Errege Lege Dekretua, abenduaren 30ekoa, Administrazio Publikoa modernizatzeko eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana egikartzeko presako neurriak onartzen dituena), alde batera utzi gabe aplikatzekoa den gainerako araudia.

2. artikulua.– Finantzaketa

Deialdi honetan araututako laguntzak emateko, baliabide ekonomikoen zenbatekoa 1.167.611 euro da, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren 2024 ordainketa-kredituaren kontura, eta lotura dute Europar Batasunaren NextGenerationEU funtsak Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren bidez finantzatuak Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planarekin. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko (EB) 2021/241 Erregelamenduak ezarri zuen mekanismo hori.

Laguntza hauek ez dira estatu-laguntza bat EBFT Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuen 107. eta 108. artikuluetan ezarritakoaren arabera, laguntzak emateak ez baitu lehia faltsutzen, ez eta lehia faltsutzeko mehatxurik ekartzen ere, zenbait enpresa edo ekoizpenen alde eginez, dirulaguntzen entitate onuradunak erkidegoko eta tokiko sektore publiko instituzionalen administrazio publikoak eta organismoak eta entitateak baitira.

Eman beharreko laguntzen guztizko zenbatekoak ez du gaindituko adierazitako zenbatekoa.

3. artikulua.– Beste dirulaguntza edo laguntza batzuekin bateragarri izatea.

Deialdi honetan araututako dirulaguntzak bateragarriak dira helburu bererako beste administrazio edo entitate publiko edo pribatu batzuek emandako dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabideekin. Edonola ere, argi identifikatuta geratu beharko da gastuen trazabilitatea, eta laguntzen eta dirulaguntzen batura ezin izango da izan diruz lagundutako gastuen kostua baino handiagoa.

(EB) 2021/241 Erregelamenduen 9. artikuluen arabera ([EB] 2021/241 Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2021eko otsailaren 12koa), Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoak finantzatuak inbertsio-proiektuek Batasunaren beste programa eta tresna batzuetatik jaso dezakete laguntza, baldin eta laguntza horrek ez badu estaltzen programa honen dirulaguntzak dagoeneko finantzatzen duen kostu bera.

4. artikulua.– Diruz lagundu daitezkeen gastuak.

1.– Arau orokor gisa, SEMak gastu hauek baino ez ditu finantzatu: egiturazko aldaketa dakarten, erresilientzia ekonomiko eta sozialean, epe luzeko lehiakortasunean, jasangarritasunean eta digitalizazioan eta enpleguan eragin iraunkorra duten eta behin eta berriro egiten ez diren gastuak.

2.– Deialdi honetan araututako laguntzek abenduaren 30eko 36/2020 Errege Lege Dekretuaren 37. artikulua araberako finantzatzeko dituzte jarduketak, SEEPen arau-esparruaren arabera hautatzeko modukoak diren jarduketak finantzatzeko.

3.– Ez dira diruz lagunduko Europar Batasunak klimaren eta ingurumenaren arloan dituen arauak eta lehentasunak eta «kalte nabarmenik ez eragiteko» printzipioa («do no significant harm – DNSH» printzipioa) erabat betetzen ez dituzten proiektuak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2020ko ekainaren 18ko (EB) 2020/852 Erregelamenduaren 17. artikuluari jarraituz. Entitate onuradunek bermatu behar dute betetzen direla.

5. artikulua.– Dirulaguntzaren zenbatekoa.

1.– Ibilbide pertsonalizatuak garatzeko dirulaguntzaren finantzaketa osoa dagokion emakidea-ebazpenean zehaztuko da, arreta jaso behar duten emakumeen kopuruaren, aurreikusitako laneratze helburuen eta dagokion moduluaren arabera; horrenbestez:

a) Artatutako emakumeko jasotako zenbatekoa 1.715 euro izango da, barnean direla, besteak beste, materialen, publizitatearen, baliabide teknikoaren eta emakume parte-hartzaileei arreta ematen dieten langileei eman beharreko prestakuntzaren gastuak.

b) Aurreko apartatua aipatutako zenbatekoari 2.500 euro gehituko zaio; diru kopuru hori arreta jaso ondoren lan-merkatuan sartu den emakume bakoitzeko jasoko da; arreta jaso ondoren bere konturako ekintzailatza-jarduera bati ekiten dion emakume bakoitzeko 6.000 euro jasoko da. Zenbateko osagarri horiek lan-merkatuan sartzea lortu duten parte-hartzaileen % 20k bakarrik jasoko dituzte, dirulaguntza moduan.

2.– Artikulu honetan aipatutako zenbatekoak modulutzat jotzen dira, dirulaguntzaren zenbatekoa zehazteko eta justifikatzeko; modulu bidezko araubidearen bidez zehaztuko dira, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 76. artikulutik 79. artikulura bitartean ezarritakoari jarraikiz.

6.– Entitate onuradunak.

1.– Entitate hauek izan daitezke deialdi honetako laguntzen onuradun:

- Foru-aldundiak eta foru-sektore publikoa.
- EAEko udalak eta tokiko sektore publikoko entitateak.
- EAEko sektore publikoko entitateak.
- EAEko tokiko edo eskualdeko garapenerako agentziak eta horiekin lotutako elkarteak.
- Hezkuntza Sailaren edo Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren mendeko prestakuntza-entitateak.
- Irabazteko asmorik gabeko entitate juridikoak, EAEn diruz lagundutako jarduerak aurrera eramateko baliabide egokiak dituztenak eta langabeei beren enplegarritasun-profilaren arabera laguntza emateko ekintzetan –besteren edo norberaren konturako laneratze prozesuetan– esperientzia dutela egiaztatzen dutenak.

Entitateek baldintza hauek betetzen badituzte iritziko zaio langabeei laguntzeko ekintzak garatzen esperientzia dutela:

- Proiektu bereziak gauzatzea, % 40 baino handiagoko itzulketarik eragin ez dutenak.

- Lanbideren orientazio-zentro laguntzailea izatea.
- Lanbideren zentro laguntzailea izatea, bitartekotza-zerbitzua ematen duena.
- Helburu sozialen artean kolektibo kalteberen enplegagarritasuna hobetzea daukaten entitateak.

2.– Entitate onuradunek zuzenean gauzatuko dituzte ekintzak, eta ezingo dute azpikontratazio-rik egin horretarako.

3.– Entitateek irakatsi nahi dituzten prestakuntza-espezialitateetan egiaztatuta edo inskribatuta egon behar dute, eskaera egin aurretik, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak kudeatzen duen prestakuntza-entitateen erregistroan, enplegurako prestakuntza-entitateen beste erregistro autonomiko batean edo Prestakuntza Entitateen Estatuko Erregistroan.

Entitateek ibilbide bakoitza behar den bezala garatzeko beharrezkoak diren baliabide tekniko eta giza baliabideak dauzkatela egiaztatu beharko dute, eta, ibilbidean aurreikusitako prestakuntza-jarduerak garatzeko, behar diren giza baliabideak eta baliabide materialak izan beharko dituzte, edo dirulaguntza adjudikatu ondoren eskuratzeko konpromisoa hartu, prestakuntza-jarduera hasteko unean. Ez dago baimenduta prestakuntza-jarduera azpikontratatzea. Horren harira, ez da azpikontrataziotzat joko prestakuntza emateko irakasleak (pertsone fisikoak) kontratatzea. Instalazio eta baliabide horiek norberarenak edo beste entitate pribatu edo publiko batzuenak izan daitezke; gainera, Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldean eduki beharko dira.

Informazio hori egiaztatzeko, entitatearen legezko ordezkariak erantzukizunpeko adierazpen bat egingo du (erantzukizunpeko adierazpena eskabide-orrian jasota dago). Nolanahi ere, entitate eskatzaileak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari eskuratzeko moduan eduki beharko ditu adierazpen horretan jasotako datuak egiazkoak direla frogatzen duten dokumentuak.

4.– Entitate onuradunek, orientazio-jarduerak egitean, honako hauek izan behar dituzte:

a) Interneterako banda zabaleko sarbide eraginkorra, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren informazio-sistemarekin konektatzeko.

b) Tableta grafikoko periferiko bat, sinadura digitala jasotzeko euskarri modura. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko informazio-sistemara konektaturik egon behar du, eta, horrez gain, bateragarria izan beharko du STU 430 modeloari edo baliokideari dagokion WACOM gailuarekin, eta haren zehaztapen teknikoak bete behar ditu.

c) Telefono-linea finkoa, kokaleku espezifiko bakoitzarekin harremanetan jartzeko.

Orientazio-ekintzak egiten dituzten langileak teknikari gisa kontratatuko dira, eta unibertsi-tate-ikasketak amaituta izango dituzte.

5.– Ezingo dira onuradun izan egoera hauetako batean diren entitateak:

a) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean ez izatea Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamenduaren 22.4 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik (uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartu zen erregelamendu hori).

Organo kudeatzaileak automatikoki egiaztatuko du zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen direla, dirulaguntza eman eta ordainketa bakoitza egin baino lehen. Hala ere, eskatzaileak berariaz aurka egin diezairoke egiaztatze horri, eta, halakorik egiten badu, baldintza hori betetzen duela frogatzen duten ziurtagiri eguneratuak aurkeztu beharko ditu.

b) Dirulaguntzen arloko itzulketa-betebeharrak egunean ez izatea Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2023ko otsailaren 13ko Aginduaren 4. artikuluan aurreikusitakoaren arabera (2023ko otsailaren 17ko EHAA).

c) Zigor-zehapena edo administrazio-zehapena ezarrita edukitzea, dirulaguntzak edo laguntza publikoak eskuratzeko aukera kentzen diona, barnean direla arrazoi hauengatik ezarritako zehapenak:

– Sexuan oinarritutako diskriminazioa eragiteagatik, edo Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 3.1 artikuluan jasotako askotariko diskriminazioa eragiteagatik.

– Ebazpen irmo baten bidez zehapen osagarri bat jasotzeagatik Lan Arloko Arau Hausteei eta Zehapenei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen abuztuaren 4ko 5/2000 Legegintzako Errege Dekretuaren 46.1.b) eta 46 bis 1.b) artikuluetan xedatutakoaren arabera.

d) Laguntzak edo dirulaguntzak jasotzea eragozten dien eta lege ezarri zaien kausaren bat izatea, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuan xedatutakoak barne:

– Ez izatea berdintasun-planik indarrean, baldin eta Estatuaren araudiaren arabera horretara behartuta dagoen enpresa bada.

– 50 langile baino gehiago dituzten enpresen kasuan, ez edukitzea ezarrita sexu-jazarpenera edo sexuan oinarritutako jazarpenera prebenitu eta eragozteko neurririk emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan Estatuak ezarrita dauzkan legeen arabera.

e) 30.000 eurotik gorako dirulaguntzetan, eta eskatzailea irabazi-asmoa duen pertsona fisikoa edo juridikoa bada, zuzenbide publikoko entitate ez dena, ez betetzea Merkataritza Eragiketetan Berankortasunaren Aurkako Neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legean ezarritako ordainketa-epeak Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluen 3 bis apartatuan aurreikusitako eran.

Eskakizun hori betetzat joko da abenduaren 29ko 3/2004 Legean aurreikusitako ordainketa-epeen betetze-maila Enpresak Sortu eta Handitzeko irailaren 28ko 18/2022 Legearen azken xedapenetako seigarrenaren d) letraren bigarren apartatuan aurreikusitako ehunekoaren parekoa edo handiagoa denean (aurreko ekitaldian hornitzaileei egindako ordainketa guztietatik ordaindutako fakturen % 90, abenduaren 29ko 3/2004 Legean ezarritako gehieneko epean).

f) Aurretiazko erabaki batean Europako Batzordeak laguntza bat lege kanpoko eta merkatu erkidearekin bateraezina dela deklaratu ondoren, berreskuratze-agindu baten zain egotea.

g) Enpresa-deslokalizazioan aritzea Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 49. artikuluan ezarritako eran.

h) Ekonomia Zirkularra Bultzatzeko Hondakinen eta Lurzoru Kutsatuen apirilaren 8ko 7/2022 Legean edo Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legean aurreikusitako arau-hauste astun edo oso astun batengatik eta administrazio-bidean irmoa den ebazpen baten bidez zehatuta egotea, harik eta behar diren neurri zuzentzaileak hartu eta zehapena ordaindu arte.

i) Desgaitasuna duten pertsonentzat lanpostuak gordetzeko lege ezarritako kuota ez betetzea, ez eta hori betetzeko neurri alternatiboak hartzea ere.

j) Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Lege Orokorraren 13. artikuluan aipatzen diren gainerako egoeretako batean egotea.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak ez badu egiaztatzen 5. apartatu honetan xedatutako betekizunen bat, eskabide-orrian dagoen erantzukizunpeko adierazpenaren bidez egiaztatu beharko da betekizun hori. e) apartatuko betekizuna dokumentazio hau aurkeztuta egiaztatuko da:

– Pertsona fisiko edo juridiko eskatzaileak kontabilitate-araudiaren arabera galdu-irabazien kontu laburtua aurkez badezake, 38/2003 Legearen 13.3 bis artikuluko a) letran aurreikusitako ziurtagiria, Lanbidek emandako ereduaren arabera.

Ziurtagiri hori dirulaguntza-eskabidearekin batera aurkeztu beharko da.

– Eskatzaile horrek ezin badu aurkeztu kontabilitate-araudiaren arabera galdu-irabazien kontu laburtua, berriz, 38/2003 Legearen 13.3 bis artikuluko b) letran aipatzen den dokumentazioa, hau da, Kontu Auditoreen Erregistro Ofizialean inskribatuta dagoen auditore batek emandako ziurtagiria, letra horren 1. apartatuan eskatutako edukia duena; edo, ziurtagiri hori ematea ezinezkoa bada, Prozedura Adostuen Txostena, aipatutako letraren 2. apartatuan eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamenduaren 22 bis artikuluan aurreikusitako eran (erregelamendu hori uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartu zen).

Lanbidek, hala badagokio, dirulaguntzak emateko ebazpenak eman aurretik eskatuko die entitate eskatzaileei aurreko paragrafoan aipatzen diren dokumentuak aurkezteko.

6. artikulua.– Entitate onuradunek proiektuak diseinatzeko eta aurrera eramateko fase guztietan eta jarduketa bakoitzean bermatu behar dute erabat betetzen dituztela «ingurumenari kalte nabarmenik ez eragiteko» printzipioa («do no significant harm–DNSH» printzipioa) eta etiketatze klimatiko eta digitala, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planean, Espainiako suspertze eta erresilientzia planaren ebaluazioa onartzeari buruzko Kontseiluaren 2021eko uztailaren 13ko exekuzio-erabakian (Council Implementing Decision-CID) eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko (EB) 2021/241 Erregelamenduan ezarritakoarekin bat, baita hura garatzeko araudian ezarritakoarekin bat ere; batez ere, irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduaren 5. artikuluan ezarritakoarekin bat: artikuluko horren arabera, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planean sartutako erreforma eta inbertsioen exekuzio-neurri batek berak ere ez die kalte nabarmenik eragingo (DNSH) sei ingurumen-helburuei.

7.– Halaber, entitate onuradunek konpromisoa hartu beharko dute behar diren eskubideak eta sarbideak emateko hemen aipatzen diren erakundeek beren kontrol-eskumenak baliatzen dituztela bermatzeko, bat etorrita Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko (EB) 2021/241 Erregelamenduaren 22.2.e) artikuluan eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018ko uztailaren 18ko (EB, Euratom) 2018/1046 Erregelamenduaren («Finantza Erregelamendua») 129.1 artikuluan ezarritakoarekin; hauek dira erakunde horiek: Batzordea, Iruzuraren aurkako Europako Bulegoa, Europako Kontuen Auzitegia, Europako Fiskaltza eta Estatuko agintari eskudunak.

7. artikulua.– Diruz laguntzeko moduko jarduerak, arreta- eta gizarteratze-helburuak eta lanean hasteko lehentasunezko esparruak.

1.– Deialdi honetan araututako dirulaguntzen xedea 1. artikuluan aipatutako bana-banako ibilbideak finantzatzea da; ibilbide horiek «Landa- eta hiri-inguruneetako emakumeei laguntzeko

programan» parte hartzen duten emakumeentzat dira, eta 2024. eta 2025. urteetan egitekoak, eta jarduketa hauek sar daitezke hor:

a) Enplegarritasunaren diagnostikoa eta laneratzeko ibilbide pertsonalizatua. Jarduteko akordio pertsonal baten barruan sartuta egon behar du horrek, eta parte-hartzaileek programan zehar egingo dituzten jarduerak identifikatuko ditu eta erabakitzen den eta emango zaien arreta mota, jarraipen-sistema eta lortutako emaitza egituratuko, enplegarritasunaren bilakaera kontuan hartuta.

b) Lan-orientazioko ekintzak eta parte-hartzaileei enplegua bilatzen laguntzeko ekintzak, barnean direla sentsibilizatzeko eta okupaziorako alderdi pertsonalak garatzeko jarduerak, eta enplegua modu aktiboan bilatzeko prozesuari, teknikei, baliabideei eta tresnei buruzkoak, curriculum egitea, lan-elkarrizketarako tailerra, eta abar, baita informazio orokorra ere, lan-merkatuari buruzkoa, autoenpleguari buruzkoa, aukeran artikuluko honen 7. apartatuan adierazitako eremuetan lurraldeari lotutako joerei, aukera profesionalei eta lan-aukerei buruzkoa, eta eremu horiei lotutako motibazio-saioak eta ekintzaitzari eta gizarte-ekonomiari buruzko aholkularitza-saioak.

c) Lanbide-kualifikazioa eta -birkualifikazioa lortzeko prestakuntza-jarduerak, artikuluko honen 7. apartatuan aipatutako arlo eta lanbide-jarduerei lotutako edukiei buruzkoak batez ere, lan batean aritzeko egokiak eta nahikoak diren ezagutza teknikoak eta trebetasunak lortzea ahalbidetzen dutenak, ahal dela aipatutako lan-arloetan, edo, bestela, ezagutza, prozedurak, teknologiak edo joerak eguneratzea edo berriz lortzea ahalbidetzen dutenak, ahal dela lan-arlo horietan. Parte-hartzaile guztiek prestakuntza-espezialitate hauetako bat gutxienez ikasi beharko dute:

– FCOI08: ekintzaitzarako oinarrizko kompetentzia digitalen hastapenak.

– FCOI06: oinarrizko kompetentzia digitalen hastapenak.

– FCOI07: enplegurako oinarrizko kompetentzia digitalak.

d) Zeharkako kompetentzien tailer-saioak (alfabetatze digitala, talde-lana, denboraren kudeaketa eraginkorra, emaitzak lortzeko orientazioa, besteak beste) eta ahalduntzekoak, parte-hartzaileak laneratzeko eta gizarteratzeko eta lana eskuratzeko berdintasuna bultzatzeko, programaren hartzailea den kolektiboaren berezitasunak kontuan hartuta.

e) Parte-hartzaileek ibilbide pertsonalizatua garatzen duten bitartean laguntzea, enplegarritasuna bultzatzeko eta hobekuntzaren jarraipena egiteko, baita lanean hasten direnean laguntzea ere.

f) Programa egiten den lurraldeko lan-merkatuaren azterketa, hauek ahalbidetzen dituena: inguruko ekonomia- eta lan-egoerari buruzko informazio eguneratua lortzea, enpresa-sareko lan-gileraren beharrak identifikatzea, eskatzen diren lan-profilak ezagutzea, lan-aukerak aurkitzea, «Landa- eta hiri-inguruneetako emakumei laguntzeko programaren» berri zabaltzea eta enpresetan aurkitutako lanpostu hutsak betetzeko hautagai gisa parte-hartzaileak proposatzea; hori guztia, aurreikusitako helburua –laneratzeari– betetze aldera.

Dirulaguntza jasotzeko, ibilbideek a), c) eta e) apartatuetako jarduerak gutxienez hartu beharko dituzte barnean.

2.– 1. artikuluan aipatutako ibilbide pertsonalizatuak osatzen dituzten ekintzak –banakakoak zein taldekoak–, ahal bada, apirilaren 10eko ESS/381/2018 Aginduaren eranskinean aurreikusitako protokoloak betez aurrera eramango dira; agindu horren bidez, Enplegu Sistema Nazionalaren Zerbitzu Zorro Komuneke protokoloak garatzeko erreferentzia den gida teknikoa onartu zen.

3.– 1. artikuluan aipatutako bana-banako ibilbideak gehienez ere sei hilabetekoak izango dira, eta proiektua onartu eta hurrengo bi hilabeteetan hasi beharko dira. Nolanahi ere, egikaritzeko gehieneko epea 2025eko irailaren 30ean amaituko da.

4.– Gainera, proiektuek baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Udalerri bakar batean egin nahi diren proiektuen kasuan, udalerriko biztanleen kopurua ezingo da izan 5.000 baino handiagoa; udalerri batean baino gehiagotan garatu nahi diren proiektuen kasuan, berriz, haien lurralde-eremuko udalerrien % 35ek, gutxienez, 5.000 biztanletik beherakoak izan behar dute.

b) Parte-hartzaileen % 35ek konpetentzia eta enplegu berdeak lortzeko bana-banako ibilbidea egingo dute.

c) Parte-hartzaileen % 35ek konpetentzia eta enplegu digitalak lortzeko bana-banako ibilbidea egingo dute.

d) Programa gauzatzeko sortutako bana-banako ibilbidean parte hartzen duten emakumeen % 20k, gutxienez, lanbideratzea lortu behar dute, norberaren edo besteren konturako.

5.– Deialdi honen ondorioetarako, arreta jaso duen parte-hartzaileak joko da bere enplegarritasuna eta laneratzeko aukerak hobetzeko ibilbide pertsonalizatua egin duen emakumea. Ibilbide hori aldeztatik egindako diagnostikoa –enplegarritasunarena– oinarri hartuta definitzen da, 3.1 artikuluan a) puntuan aurreikusitakoaren arabera, eta emakumearen profilarikin, beharrek eta itxaropenekin bat datozen eta ekoizpen-mundura sartzea ahalbidetuko dioten jarduerak osatu behar dute. Gainera, ibilbidea egiteko egutegia eta haren jarraipena ere jaso behar ditu. Dena den, lanbide-kualifikazioa eta -birkualifikazioa lortzeko prestakuntza-jarduerak osatu beharko dute ibilbidea.

Arreta jaso duen pertsonatzaileak jotzeko, apartatu honen lehenengo paragrafoan esandakoaz gain, egiaztatu beharko da parte-hartzaileak laguntza izan duela 3.1 artikuluan honen e) letran aipatutako modalitateetako batean gutxienez, eta alfabetatze digitaleko ezagutza duela, probetxuz ikasi duela eta artikuluan honen 1.c) apartatuan aipatutako oinarritzeko konpetentzia digitalei buruzko prestakuntza-espezialitateetako bat. 1.1 artikuluan adierazitako ondorioetarako, programa honen xedea den bana-banako ibilbidea osatu edo amaitu duten parte-hartzaileak joko dira arreta jasotako parte-hartzaileak.

6.– Deialdi honen ondorioetarako, parte-hartzaile laneratzeko joko da aurreko apartatuan deskribatutako mailara iristean gain enplegarritasunaren diagnostikoa eta enplegua lortzeko ibilbidea eskuratzen direnetik lan-merkatuan sartzea (norberaren edo besteren kontura) eta Gizarte Segurantzaren dagokion erregimenean kotizatzea ere lortzen duen pertsona.

Parte-hartzaile laneratzeko jotzeko, kotizatutako egunen gutxienerako epea 90 egunekoak izango da; egun horiek jarraian ez badaude, gehienez bost hilabeteko epekoak izan behar dute, lehenengo kontratazio-aldia hasten denetik edo norberaren kontura jarduten hasten denetik aurrera. Kotizatutako egunen gutxienerako kopuru hori egiaztatzeko, kontratatutako pertsonaren lan-bizitzaren txostenaren atalera sartu behar da. Lanaldi partzialeko kontratuei dagokienez, gutxienez lanegun erdikoak direnak onartuko dira bakarrik, eta lanaldi partzial bakoitza kotizatutako lanaldi osoko egunaren % 75 balitz bezala zenbatuko da.

7.– Diruz lagundu daitezkeen ibilbideak, bai eta haiek egitearen ondoriozko lanpostuak betetzeko zeregina eta laneratzeko profesionala ere, artikuluan honen lehen apartatuan adierazitakoarekin bat etorritik, konpetentzia eta enplegu berde eta digitalek bideratu beharko dira, eta iraupen

luzeko zainketen, ekintzaitzaren eta gizarte-ekonomiaren esparruak hartu behar dituzte, bai eta hauekin lotutakoak ere, besteak beste: energia berriztagarriak, uren eta hondakinen tratamendua, ingurunea errespetatzen duten baso- eta nekazaritza-aprobetxamenduak, ekonomia zirkularra, zerbitzuen digitalizazioa, online merkataritza-jarduerak, teknologia, eta tokiko landa-garapen jasangarria, lurralde-koheretza indartzen duena (ondarearen kudeaketa, turismo-jarduera, tokiko dimentsioko eta dimentsio berdeko ekintzaitza eta gizarte-ekonomia, produktu endogenoak) eta gizarte-koheretza indartzen duena (mendetasunarekiko arreta eta kolektibo kalteberetako esku-hartzea).

8.– Eskaeretakoa parte-hartzaileak gutxienez zortzi izango dira.

8. artikulua.– Programa norentzat den.

Deialdi honetan diruz lagunduko diren bana-banako ibilbideetan, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan inskribatuta dauden emakume langabeek parte hartu ahal izango dute; batez ere, 5.000 biztanletik beherako udalerrietan bizi direnek, prestakuntza- edo lanbide-kualifikazioa edo -birkualifikazioa lortzeko beharra dutenek.

Deialdi honen ondorioetarako, emakumeek kualifikazioa behar dute, ez badute lan-sektore konkretu batean lanbide batean jardutea ahalbidetzen dien profesionaltasun-ziurtagiririk, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulurik, erdi-mailako edo goi-mailako Lanbide Heziketako titulurik edo unibertsitateko titulaziorik.

Deialdi honen ondorioetarako, emakumeek lanbide-birkualifikazioa behar dute, baldin eta, profesionaltasun-ziurtagiri bat, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulu bat, erdi-mailako edo goi-mailako Lanbide Heziketako titulu bat edo unibertsitateko titulazio bat izan arren, titulu horiek hautaketa-data baino bost urte lehenago lortu badira eta programan sartu aurreko urtean beren lan-bizitzaren agirian ez badago ikasketa-arloarekin zuzenean lotuta dagoen kontraturik; ondorioz, jarduera egiteko ikasketa horiek behar dituztela iritziko zaio.

Inskribatuta dauden eta 5.000 biztanletik beherako udalerrietan bizi diren emakume langabeek proiektu bakoitzean parte hartzen duten pertsonen % 35 izango dira, gutxienez.

9. artikulua.– Eskabideak aurkeztea.

1.– Deialdi honetan aipatzen diren dirulaguntzak jasotzeko eskabideak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiari igorriko zaizkio; bide elektronikoz izapidetuko dira, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren prestakuntzarako aplikazio informatikoaren bidez (LanF), eta entitatearen legezko ordezkariak sinadura elektronikoa jarri beharko du eskabidean.

Aplikaziora sartzeko aukerarik ez duten entitateek Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren webgurearen bidez eskatu ahal izango dute: <https://www.lanbide.euskadi.eus/prestakuntza/-/informazioa/erakundeen-erregistroa/>

Administrazio-prozeduraren informazio-fitxa (izapidetze elektronikorako jarraibideak ematen dituen) helbide honetan eskuratu ahal izango da: <https://www.euskadi.eus/servicios/1209501>

2.– Entitate bakoitzak proiektu bakar bat aurkeztu ahal izango du eskabidean. Proiektu bakoitza gauzatzeko ezarritako bana-banako ibilbideak, baita proiektua osatzen duten diruz laguntzeko moduko jarduerak ere, honela antolatuko dira: parte-hartzaileen % 35ek (gutxienez) konpetentzia eta enplegu berdeak garatzeko dituzte, eta parte-hartzaileen beste % 35 batek (gutxienez), konpetentzia eta enplegu digitalak. Gainera, proiektu bakoitzak barnean hartu behar du, laneratze-helburu gisa, parte hartzen duten eta arreta jasotzen duten emakume guztien % 20k gutxienez norberaren

edo besteren konturako enplegua lortzea, kontuan hartuta, 5.1 artikuluekin bat, lan-merkatuan sartzea lortzen duten parte-hartzaileen % 20 bakarrik lagunduko direla diruz.

Udalerrri bakar batean egin nahi diren proiektuen kasuan, udalerrriko biztanleen kopurua ezingo da izan 5.000 baino handiagoa. Udalerrri batean baino gehiagotan garatu nahi diren proiektuen kasuan, haien lurralde-eremuko udalerrrien % 35ek, gutxienez, 5.000 biztanletik beherakoak izan behar dute.

Entitate onuradun bakoitzak eskatzen duen zenbatekoa ezingo da izan deialdiko zuzkidura osoaren % 20 baino handiagoa.

3.– Dirulaguntzaren eskabidean, diruz laguntzea nahi den ibilbide pertsonalizatuaren proiektua adieraziko da. Horretarako, LanF aplikazio informatikoan, hemen zerrendatzen diren eta proiektuaren deskribapen-txostena osatzen duten eremu hauek bete behar dira:

- 1) Proiektuaren izena.
- 2) Proiektua koordinatzeko harremanetarako pertsona/pertsonak eta haren/haien datuak.
- 3) Zerbitzua emango zaien parte-hartzaileen kopurua eta laneratzeari dagokionez aurreikusitako helburuak.
- 4) 5.000 biztanletik beherako udalerrria, edo, hala badagokio, jarduteko eremuak, non udalerrrien % 35ek 5.000 biztanle baino gutxiago izan behar dituzten; udalerrrien multzo biak argi eta garbi identifikatu behar dira.
- 5) Kostu osoa, gaitasun eta enplegu berdeetara batetik eta konpetentzia eta enplegu digitale-tara bestetik zer aurrekontu bideratuko den adierazita, eta eskatutako dirulaguntza eta, hala badagokio, entitate onuradunaren ekarpena bereizita.
- 6) Laneratzekeo ibilbide pertsonalizatuak garatzeko eskatzen diren ekintzak:
 - 6.1.– Prestakuntza jarduerak –gaitasun «berdeak» edo digitalak ikastekoak batez ere, baita zeharkako konpetentzia eta trebetasunak eskuratzekoak ere–, aurreikusitako hasiera-datak adierazita.
 - 6.2.– Banakako lan-orientazioa jasotzeko ekintzak, aholkularitza, informazioa: ordu kopurua eta egiteko epea.
 - 6.3.– Zeharkako konpetentziak ikasteko eta ahalduntzeko tailer-saioak: ordu kopuruak eta gauzatzeko epea.
 - 6.4.– Ibilbide pertsonalizatua egin bitartean laguntzea.
- 7) Helburu operatiboak eta emaitzakoak. Adierazleak.

4.– Izapidetze elektronikoa ordezkarri baten bidez egin ahal izango da, eta, horretarako, ordezkaritza hori Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren ahalordeen erregistro elektronikoa inskribatu beharko da, helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/ordezkarriak>

5.– Eskabideak ez baditu betetzen baldintza guztiak, entitate interesdunari jakinaraziko zaio hamar egun balioduneko epea duela, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunean zenbatzen hasita, hutsune edo akatsa konpontzeko, edo nahitaezko dokumentuak aurkezteko. Hori egin ezean, eskabideari uko egin diola ulertuko da, horretarako beharrezkoa den ebazpena eman eta gero.

6.– Eskabideak aurkezteko epea ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean hasi, eta 2025eko maiatzaren 30ean amaituko da.

10. artikulua.– Eskabidean zer dokumentazio aurkeztu behar den dirulaguntza Europar Batasuneko Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoak finantzatzen duenean.

Eskabidearekin batera, dokumentazio hau aurkeztu beharko da, eta dokumentazio orokorrari gehituko zaio:

Onuradunaren eta, hala badagokio, azpikontratisten benetako titulartasunaren identifikazioa. Identifikatzeko, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2015eko maiatzaren 20ko (EB) 2015/849 Zuzentarauaren 3. artikuluan 6. puntuan xedatutakoa beteko da, irailaren 29ko HFP/1031/2021 Aginduaren 10. artikuluan ezartzen denari jarraikiz, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko (EB) 2021/241 Erregelamenduaren 22. artikuluari lotuta.

Benetako titulartasunari buruzko erantzukizunpeko adierazpena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2015eko maiatzaren 20ko (EB) 2015/849 Zuzentarauaren 3. artikuluko 6. puntuaren arabera (I. eranskina).

Jarduera ekonomikoak dituzten entitate onuradunek, irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduaren 8. artikuluan arabera, egiaztatu behar dute Zerga Administrazioiko Estatu Agentziaren enpresaburu, profesional eta atxikitzaileen erroldan edo Zergen Foru Administrazioaren errolda baliokidean inskribatuta daudela, eta inskripzio horrek laguntza eskatzen den egunean benetan duten jarduera ekonomikoa azaldu behar du.

«Kalte nabarmenik ez eragiteko» printzipioa («do no significant harm – DNSH» printzipioa) beteazari buruzko erantzukizunpeko adierazpena, (EB) 2021/241 Erregelamenduaren 2. artikuluko 6. apartatuan ezarritako moduan (Europako Parlamentuak eta Batzordeak 2021eko otsailaren 12an onetsi zuen erregelamendu hori). (II. eranskina).

Interes Gatazkarik Ezaren Adierazpena (IGEA) (III. eranskina).

Iruzuraren aurkako politikara atxikitzeke eta hura ezagutzeko erantzukizunpeko adierazpena. (IV. eranskina).

Finantzaketa bikoitzik ez duela dioen erantzukizunpeko adierazpena. (V. eranskina).

Tartean dauden administrazio publikoen artean datuak lagatzeko eta tratatzeko adierazpena, SEEPeko jarduketak aurrera eramatearekin lotua, aplikatu behar den Europako araudian xedatutakoa betetzeko, bat etorrita Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko Lege Organikoarekin (3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa) (VI. eranskina).

SEEP-NextGenerationEU planean ezarrita dauden eta kudeatu beharreko esparruari eragin diezaioketen zeharkako printzipioak betetzeko konpromisoari buruzko erantzukizunpeko adierazpena (VII. eranskina).

Batzordearen, Iruzuraren aurkako Europako Bulegoaren (OLAF), Europako Kontuen Auzitegiaren, Europako Fiskaltzaren eta Estatuko agintaritzak eskudunen sarbiderako berriaz emandako baimena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko (EB) 2021/241 Erregelamenduaren 22.2.e) artikuluan eta Europako Parlamentuaren 2018ko uztailaren 18ko (EB, Euratom) 2018/1046 Finantza Erregelamenduaren 129. artikuluan xedatutako eskumenak balia ditzaten (VIII. eranskina).

Irabazi-asmorik gabeko entitate juridikoek estatutuak aurkeztu beharko dituzte.

SEEPeko jarduketak egiteko konpromisoa hartzeko adierazpena (IX. eranskina).

Aipatzen diren ereduak LanF aplikazioan egongo dira eskuragarri.

11. artikulua.– Prozedura eta ebazpena.

1.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Enplegurako Lanbide Heziketako Zuzendaritza izango da prozedura izapidetu eta ebazteko organo eskuduna.

2.– Dirulaguntzak emateko prozedura lehiarik gabekoa izango da, eta emakida-ebazpenak eskabideak aurkezteko hurrenkeran emango dira, jarduera diruz laguntzeko modukoa dela eta eskatzen diren gainerako baldintzak betetzen direla egiaztatu ondoren, deialdian esleitutako aurrekontuko kreditua ahitu arte.

1.2 artikuluan hasieran aurreikusitako aurrekontu-zuzkidura ahitzen bada, ez da beste laguntzarik emango; funts berriak jasota dirulaguntzak finantzatzeko aurrekontu-kreditua handitzen denean ekingo zaio berriz prozesuari. Baliabide ekonomikoak behin betiko ahitzen badira, geratzen diren eskaerei ez zaie dirulaguntzarik emango.

Prozesua gelditzen denean eta, hala badagokio, dirulaguntzak berriz ematen hasten denean, EHAAn emango da horren berri, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Lanbide Heziketaren zuzendariaren ebazpen baten bidez, aurrekontuko kredituaren zenbatekoa adierazita; era berean jakinaraziko da dirulaguntza horiek finantzatzeko baliabide ekonomikoak behin betiko ahitu direla.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Enplegurako Lanbide Heziketaren zuzendari nagusiak laguntzak emateko edo ukatzeko ebazpena emango du, eta banan-banan jakinaraziko du, bitarteko telematikoen bidez.

3.– Eskaerak baloratu aurretik, interes-gatazkak izateko arriskua aztertuko da, Minerva aplikazioaren bidez. Azterketa hori urtarrilaren 24ko HFP/55/2023 Aginduan jasota dago, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana betearazten duten prozeduretako interes-gatazkaren arriskuari analisi sistematikoari buruzkoan.

Pertsona juridiko eskatzailearen baten benetako titulartasunari buruzko daturik ez badago Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren datu-baseetan, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak bere benetako titulartasunari buruzko informazioa eskatuko dio, eta pertsona horrek informazio-eskaera egiten denetik bost egun baliodun igaro baino lehen aurkeztu beharko du. Informazio hori esandako epearen barruan ez aurkezteak eskatzailea prozeduratik baztertzea dakar.

4.– Eskabideak ebazteko eta ebazpenak jakinarazteko gehieneko epea bi hilabetekoa da, eska-bidea Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren erregistroan sartzen den egunetik aurrera; epe hori igarotakoan entitate interesdunari ebazpena jakinarazi ez bazaio, dirulaguntzaren eskaera ezetsi dela ondorioztatuko da.

Dirulaguntza emateko ebazpenak zehaztuko du finantzaketa Europar Batasunaren Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren barrukoa dela, eta oinarritzko alderdi hauek adieraziko ditu:

a) Aurreikusitako helburuak, zerbitzua emango zaien eta laneratu behar diren parte-hartzaileei eta konpetentzia eta enplegu berde eta digitalei dagokienez.

b) Programa garatzeko toki geografikoa, probintziakoa.

c) Eman nahi den dirulaguntzaren zenbatekoa, bi hauek bereizita: parte hartzen duten emakumeentzako zerbitzua finantzatzeko zatia, helburu horrekin aplikatu daitezkeen modulu ekonomikoarekin batera, eta modulu osagarria, zerbitzatutako parte-hartzaile bakoitzeko, baldin eta laneratzea lortu badu.

5.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Enplegurako Lanbide Heziketaren zuzendariaren ebazpenek ez diote amaiera ematen administrazio-bideari, eta, haien aurka, gora jotzeko errekurtsioa jarri ahal izango zaio Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

6.– Entitate onuradunei dirulaguntzak emateko eta ordaintzeko, ezinbestekoa izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak edo haren organismo autonomoek emandako antzeko dirulaguntzen edo laguntzen kariatara bideratzen hasi diren eta oraindik izapidetzen ari diren itzulerak edo zehapen-prozedurak amaituta egotea.

7.– Publikotasunaren printzipioa betetzeko, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Enplegurako Lanbide Heziketaren zuzendariaren ebazpen baten bidez, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian emango da jakitera zer entitatek jaso duten dirulaguntza deialdi honen babesean eta zenbateko laguntza jaso duten.

12. artikulua.– Parte-hartzaileak hautatzea.

1.– Entitateek proiektuaren berri emango dute Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren webgunearen bidez, dagokion zerbitzu-eskaintzaren bidez.

Parte-hartzaileen azken hautaketa entitate onuradunak egingo du, aurrez izena eman duten hautagaien artean. Hortaz, entitatea Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Prestakuntzaren Kudeaketaren aplikazioan sartu ahalko da (LanF) izena eman duten hautagai guztien informazioa eskuratzeko, eta hautaketa-prozesua jarduketak hasi baino nahikoa denbora lehenago eta behar besteko bermearekin egin behar du.

2.– Profesionaltasun-ziurtagiriak edo ziurtagiri profesionalak lortzeko prestakuntza-ekintzetan parte hartu ahal izateko, sartzeko eskakizunak bete beharko dira, Lanbide Heziketako Sistemaren Antolamendua garatzen duen uztailaren 18ko 659/2023 Errege Dekretuaren 75. artikuluan eta bosgarren xedapen gehigarrian ezarriak.

Prestakuntza-espezialitateen katalogoan jasotako prestakuntza-espezialitateen bateko prestakuntza-ekintzetan parte hartu nahi dutenek, era berean, katalogoan espezialitate bakoitzerako ezarritako sarbide-baldintzak bete behar dituzte.

13. artikulua.– Jarduketak egitea.

1.– Dirulaguntzen entitate onuradunek zuzenean gauzatuko dituzte ekintzak, eta ezingo dute hirugarrenik azpikontratatu horretarako.

Prestakuntza-jarduerari dagokienez, diruz lagundutako prestakuntza emateko irakasleak kontratatzea ez da joko azpikontrataziotzat. Irakasleak kontratatzea pertsona fisikoak kontratatzea baino ez da.

2.– Gainera, prestakuntza-jardueretan, hauek kontuan izan beharko dira:

a) Parte-hartzaileek ezingo dituzte eman egunean 7,5 ordu baino gehiago prestakuntza-ekintzetan. Nolanahi ere, astean ez dira izango 37,5 ordu baino gehiago. Muga horien barruan errenditu behar da, profesionaltasun-ziurtagiri bakoitzean lantokietan egiten den prestakuntza praktikoaren

moduluko orduak edo profesionaltasun-ziurtagiriei ez dagozkien ekintzen praktiken orduak gehituz gero ere.

b) Prestakuntza-ekintza hasi ondoren, saioak erregularri emango dira, eta prestakuntza-zentroak ezingo ditu etenaldi baterako, ezinbestean ez bada; etenaldia behar bezala justifikatu beharko da eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak onartu.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak prestakuntza-ekintza kautelaz eten ahal izango du, baldin eta prestakuntza normal emateko orduan eragin nabarmena duten anomaliak hautematen badira.

c) Ikasleren batek prestakuntza-ekintza uzten badu, haren lekuan beste parte-hartzaile bat sartu ahal izango da. Prestakuntza-jardueraren iraupenaren ehuneko 25era iritsi baino lehen onartuko da ordezte hori, salbu eta profesionaltasun-ziurtagiriei loturiko prestakuntza-jarduerak badira; kasu horretan, ordezte prestakuntza-jarduera hasi eta lehen bost eskola-egunetan gertatzen bada onartuko da soilik. Parte-hartzaileek proiektuko ibilbidearekin bat egin beharko dute, prestakuntza-ikastaroko ikasle gisa onartuak izateko.

d) Prestakuntzaren helburua profesionaltasun-ziurtagiriak lortzea ez bada, lanekoak ez diren lanbide-praktikek ezingo dute iraun, oro har, 200 ordu baino gehiago, eta prestakuntza-ekintza amaitu osteko lehen bi hilabeteetan hasi beharko dira.

Prestakuntza profesionaltasun-ziurtagiriak lortzera bideratuta dagoenean, praktikaren iraupena eta edukiak lan-zentroko prestakuntza praktikoko moduluaren arabera izango dira (Profesionaltasun Ziurtagiria arautzen duen Errege Dekretuaren II. eranskinean ezarritakoa).

e) Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua ikastarora gutxienez bi bisita egiten saiatuko da, bat hasieran eta bestea amaieran.

f) Ikastaroaren hasieran, prestakuntza-zentroek gutxienez material hau emango diote prestakuntza-ekintzetan parte hartzen duen bakoitzari:

– eskuliburu bat, editatua edo euskarri informatikoan, espezialitatearen eduki guztiak biltzen dituen.

– ikastaroa behar bezala egiteko behar den idazmahaiko materiala, eta

– behar diren babes-elementuak.

Era berean, ikasleei zer eskubide eta betebeharrak dituzten azalduko diete, eta zein diren kanpotzeko arrazoiak eta prozedurak.

g) Prestakuntza amaitutakoan, parte-hartzaile bakoitzari asistentzia-ziurtagiria edo diploma emango zaio, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak ezarritako ereduaren arabera, ebaluazioa positiboa izan bada eta prestakuntza gainditu badu. Dokumentu horretan, gutxienez datu hauek adieraziko dira: prestakuntza-ekintzaren izena, prestakuntza-edukiak, prestakuntza emateko modalitatea, hasteko eta amaitzeko egunak, eta ikasleak guztira jaso dituen prestakuntza-orduak.

3.– Orientazio-ekintzak egikaritzeari dagokionez, muga hauek kontuan izan behar dira:

Bana-banako ekintzak: gehieneko arreta-denbora pertsonako eta eguneko: 1,5 ordu.

Talde-ekintzak: gehieneko iraupena eguneko: 4 ordu.

Pertsona bati ematen zaion arreta osoaren gehieneko denbora (banakako ekintza eta talde-ekintza): 20 ordu.

4.– Zeharkako kompetentzietan eta ahalduzko buruzko tailer-saioak onetsi den eskaeran aurreikusitakoarekin bat egingo dira, baita parte-hartzaileei beren enplegagarritasuna bultzatzen eta hobekuntzaren jarraipena egiten laguntzeko ekintzak ere, ibilbide pertsonalizatua egin bitartekoak, eta lanean hasten direnean laguntzeko ekintzak ere bai. Horretarako, parte-hartzaile bakoitzak helburua lortzeko behar duen egokitzapena egingo da.

5.– Parte-hartzaile laneratuei dagokienez, programaren onuradun izango diren entitateek enpresei jakinaraziko diete programaren ondorioz egindako kontratuen jakinarazpenean «Landa- eta hiri-inguruneetako emakumeen enplegu programa. Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa» jarri behar dutela horretarako sortu den ereduaren, Contrat@ aplikazioaren bidez.

14. artikulua.– Entitate onuradunen betebeharrak.

Onuradunaren betebeharrak izango dira, deialdi honetako artikuluetan ezarritakoez gain, lege-xedapen hauetan oro har ezarritakoak ere: Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 14. eta 46. artikulua, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 14. artikulua, enplegurako lanbide-heziketaren sistema arautzen duen araudia eta urriaren 11ko 1121/2021 Agindua. Bereziki, betebeharrak hauek ditu onuradunak:

– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak esandako moduan eta maiztasunez, dagozkion urratsak eta helburuak betetzea ahalbidetzen duten datuen aldizkako bilakaera jakinaraztea eta egiaztatzea.

– Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren edo Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailetzaren egiaztapen-jarduketak, Estatuko Administrazio Orokorraren Esku Hartzailetza Nagusiaren kontrol finantzarioak –hala badagokio– eta Kontuen Auzitegiaren legedian aurreikusitakoak egiten uztea, baita honako hauen jarduketak egiten uztea ere: batetik, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak, Ekonomia eta Ogasun Sailaren Kontrol Ekonomikoko Bulegoak, Lan eta Enplegu Sailak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak.

– Estatuko edo nazioarteko beste administrazio batek edo entitate publiko batek helburu bere-rako emandako dirulaguntzak, laguntzak, diru-sarrerak edo baliabideak jaso izanaren berri ematea Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari, eta baliabide horiek kostuak bi aldiz ez finantzatzea.

– Diruz lagundutako jardueraren xedea edo nondik norakoa nabarmen aldatzen duen edozein gertaera jakinaraztea, bai eta dirulaguntza emateko orduan kontuan hartutako edozein inguruabarraren aldaketa ere.

– Laguntzarekin lotutako transakzioak kontabilitate-identifikazio bereizi baten bidez edo kontabilitate-kode egoki baten bidez identifikatzea.

– Prestakuntza-entitate onuradunaren ordezkariak edo ahalduak, dirulaguntza onartzeko unean, izaera pertsonaleko datuei dagokien konpromisoa sinatu beharko du, nahitaez, datu horien tratamenduaren arduradun den aldetik, arlo hori arautzen duen indarreko legedian ezarritako eran.

– Konpromisoa adieraztea enpresa-deslokalizaziorik ez egiteko, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 49. artikuluan ezarritakoaren arabera.

15. artikulua.– Komunikazio eta publizitatearen arloko betebeharrak.

Deialdi honetan diruz lagundutako jarduketak eta jarduketa horiei buruz eta landa- eta hiri-inguruneetako emakumeei laguntzeko programari buruz egiten den publizitate guztiak behar bezala identifikatuta egon beharko dute, informazio, komunikazio eta publikotasunaren arloan Estatuko araudiak eta Europar Batasunak Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoarako ezartzen dituzten betebeharrekin bat etorrira.

Hala, dirulaguntza hauek jasotzen dituzten entitateek finantzaketa horren jatorriaren berri eman beharko dute jarduketan publizitatean, eta ikusteko moduan jarri beharko dute informazio hori. Hala dagokionean, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren identifikazio grafikoaz eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren logoaz gainera, Europar Batasunaren ikurra txertatuko dute, eta finantzaketari buruzko adierazpen egoki bat, honela dioena: «Europar Batasunak – NextGenerationEUK finantzatua». Helbide honetan eskuratu ahal dira elementu horiek: <https://planderecuperacion.gob.es/identidad-visual> Ikusgarritasun hori, bereziki, jarduera egiten den lokaletan, material didaktiko guztietan eta bestelako materialetan bermatu behar da, eta pres-takuntza-jarduerak eta emaitzak sustatzen direnean, askotariko hartzaileei (komunikabideak eta herritarrak barne) zuzendutako informazio koherentea, eraginkorra eta neurritzkoa emanaz.

16. artikulua.– Entitate onuradunentzako betebeharrak bereziak, Europar Batasuneko Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren finantzaketari buruzkoak.

Entitate onuradunek, gainera, Europar Batasunaren Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren finantzaketari buruzko Europako eta Estatuko betebeharrak hauek bete beharko dituzte:

«DNSH – Do Not Significant Harm» printzipioa (ingurumenari kalte nabarmenik ez eragiteko printzipioa), klimaren arloko etiketatzearen baldintzak (01 etiketa – Konpetentzia eta enplegu berdeetarako ekarpena [100 %]) eta etiketatze digitalaren baldintzak (108 etiketa – Gaitasun digitalak garatzeko laguntza [100 %]) erabat betetzen direla bermatzea, honako hauek ezarritakoarekin bat: Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana; Kontseiluaren Exekuzio Erabakia, Espainiako Suspertze eta Erresilientzia Planaren ebaluazioa onartzeari buruzkoa (Council Implementing Decision – CID); Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko (EB) 2021/241 Erregelamendua, eta irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduaren 5. artikulua (aginduak Susper-tze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren kudeaketa-sistema eta hura garatzeko araudia eratzen ditu, proiektuen diseinuaren eta exekuzioaren fase guztietan eta jarduera bakoitzerako banaka). Entitate onuradunek, nolahi ere, printzipio hori betetzen dela egiaztatzeko mekanismoak eta aplikatzen dela ziurtatzeko neurri zuzentzaileak aurreikusiko dituzte, eta horren berri emango dute dirulaguntza justifikatzeko memorian.

Interes-gatazkarik, iruzurrik eta ustelkeriarik ez dagoela bermatzea, eta baldintzarik eta erre-parorik gabe onartzea dirulaguntza eman duen administrazioak onartutako Iruzuraren Aurkako Neurrien Plana. Plan horren xedapenak erabat bete beharko dituzte, autonomia-erkidegoko, estatuko eta Europako araudia zeharo errespetatuz, iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazka pre-benitzeari, atzemateari eta zuzentzeari dagokienez, eta Europar Batasuneko erakundeek beren finantza-interesak babesteari buruz hartzen dituzten erabakiekin bat etorritik. Urtarrilaren 24ko HFP/55/2023 Agindua indarrean jarri zenetik (HFP/55/2023 Agindua, urtarrilaren 24koa, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana betearazten duten prozeduretako interes-gatazken arriskuaren analisi sistematikoari buruzkoa), Eusko Jaurlaritzaren neurrien plana aplikatu behar zaien entitateek haren prozedura espezifiko bat bete behar dute: SEEPek finantzatutako kontratazio- eta dirulaguntza-prozesuetan interes-gatazkarik ez izateko hark ezartzen duena.

Estatuko edo nazioarteko beste edozein administrazio edo entitate publikok beste dirulaguntza edo bestelako laguntza batzuk ematen badizkio helburu bererako, onuradunak dirulaguntzak ematen dituen administrazioari jakinarazi beharko dio hori, eta kostu bera ezin izango da bi aldiz finantzatu.

Europako Batzordeak, Iruzuraren Aurkako Europako Bulegoak, Europako Kontuen Auzitegiak eta Europako Fiskaltzak ezarritako kontrolak onartzea. Horretarako, dirulaguntzari buruz eskatu-

tako informazio guztia emango zaie organo horiei, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren otsailaren 12ko (EB) 2021/241 Erregelamenduaren 22.2.e) artikuluan ezarritakoaren arabera.

Entitateak bermatu behar du badakiela laguntza horren finantzaketa Europar Batasuneko SEMetik datorrela, eta, beraz, bere gain hartzen dituela Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko (EB) 2021/241 Erregelamendutik (hau da, SEMa ezartzen duen erregelamendutik) eta finantzaketa horri aplikatu beharreko gainerako Europar Batasuneko arauetatik edo estatu-arauetatik eratorritako betebeharrak guztiak. Hori erantzukizunpeko adierazpen baten bidez egiaztatu behar da.

Batzordeari, Iruzzurraren Aurkako Europako Bulegoari, Kontuen Auzitegiari eta, hala dagokionean, Europako Fiskaltzari Finantza Erregelamenduaren 129. artikuluan 1. apartatuak aitortzen dizkien eskubideak egikaritzeko baimena ematea, eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren sartutako erreformak eta inbertsio-proiektuak aplikatzeko neurrietarako ordaindutako funtsen azken hartzaile guztiak behartzea, edo aplikazioan esku hartzen duten gainerako pertsona edo entitate guztiak, eta berariaz baimena ematea Batzordeari, Iruzzurraren Aurkako Europako Bulegoari, Kontuen Auzitegiari eta, hala dagokionean, Europako Fiskaltzari, Finantza Erregelamenduaren 129. artikuluan 1. apartatuak aitortzen dizkien eskubideak egikaritzeko eta antzeko betebeharrak ezartzeko funtsen azken hartzaile guztiei.

Jasotako funtsen aplikazioaren egiaztagiria eta dokumentu elektronikoak bost urtez zain-tzea eta gordetzea, edo hiru urtez, baldin eta finantzaketaren zenbatekoa 60.000 eurokoa edo txikiagoa bada, egiaztapen- eta kontrol-jarduerak egin ahal izan daitezten, Europako Parlamen-tuaren eta Kontseiluaren 2018ko uztailaren 18ko (EB, Euratom) 2018/1046 Erregelamenduaren 132. artikuluan eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko (EB) 2021/241 Erregelamenduaren 22.2.f) artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik.

Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren kudeaketa-sistema zehazten duen irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduaren 9. artikuluan ezarritako komunikazio-betebeharrak betetzea. Bereziki, inbertsioen jardueri buruzko informazio- eta komunikazio-neurrietan (informazio-kar-telak, plakak, argitalpen inprimatuak zein elektronikoak, ikus-entzunezko materiala, webguneak, prentsako iragarkiak eta txertaketak, ziurtagiriak, eta abar), logotipo hauek sartu beharko dira: a) Europar Batasunaren ikurra; b) Batasunaren ikurrarekin batera, «Europar Batasunaren Next Generation EUk finantzatua» testua; c) 821/2014 Exekuzio Erregelamenduaren II. eranskinean ezarritako arau grafiko eta kolore normalizatuak hartuko dira kontuan.

Beren identifikazio-datuak datu-base batean sartzea, Europako Parlamentuaren eta Kon-tseiluaren 2021eko otsailaren 12ko (EB) 2021/241 Erregelamenduaren 22.2.d) artikuluan eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren kudeaketa-sistema eratzen duen irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduaren 8. artikuluan adierazitakoaren arabera.

Diruz lagunduta egiten diren jarduketan fidagarritasunaren eta jarraipenaren erantzule izatea, une oro jakin ahal izateko jarduketa bakoitza zenbateraino bete den. Hirugarrenek egin beharreko jarduketan kasuan, mekanismoak ezartzea hirugarren horiek aurreikusi diren jarduketak aurrera eramaten laguntzen dutela ziurtatzeko eta –hala badagokio– behar diren suspertze-planaren adierazle, mugarri eta helburuen balioa zehazteko beharrezkoa den informazioa ematen dutela ziurtatzeko.

Tartean diren administrazio publikoen artean datuak lagatzea onartzea, aplikatzekoa den Euro-pako araudia betetzeko, bat etorritik Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoarekin eta irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduaren 8. artikuluan osoarekin, zeinak funtsen azken hartzailearen identifikazioa arautzen baitu. Informazio

horrek eskuragarri egon behar du, irailaren 29ko HFP/1031/2021 Aginduaren 10. artikulua eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko (EB) 2021/241 Erregelamenduaren 22.2.d) artikulua garatzeko.

Nolanahi ere, deialdi honetan araututako dirulaguntzei Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planerako ezartzen diren jarraipena, kontrola eta ebaluazioa egin beharko zaie, eta informazioaren eta publikotasunaren arloan, kontrol-, egiaztapen-, jarraipen- eta ebaluazio-arloan eta bestela ere barne-araudiak eta Europar Batasunekoak Europar Batasuneko Suspertze eta Erresilientzia Mekanismorako ezartzen dituzten betebeharrak bete behar dituzte, nahitaez aplikatzekoak direnean.

17. artikulua.– Prestakuntza-ekintzetan parte hartuko duten pertsonen eskubideak eta betebeharrak.

1.– Prestakuntza-ekintzak doakoak dira ikasleentzat.

2.– Ikasleek aseguru-estaldura izango dute ikastaroetan eta, behar denean, enpresako prestakuntza praktikoan, bai eta haietarako egiten dituzten joan-etorrietarako; izan ere, Eusko Jaurlaritzak poliza bat sinatuko du istripuak eta erantzukizun zibila estaltzeko.

3.– Parte-hartzaileek ikastaroaren egutegia, prestakuntza-ekintzaren programa eta ikasleen eskubide eta betebeharrak buruzko dokumentua jasoko dituzte lehen eskola-egunean, eta jaso izanaren agiria sinatuko dute.

4.– Ikasleek prestakuntza-ekintzetara joan beharko dute, eta haiei etekina atera. Hori bermatzeko, entitate onuradunak eguneroko bertaratze-partea egin beharko du, eta irakasleak zein parte-hartzaileek sinatu beharko dute. Profesionaltasun-ziurtagirien kasuan, eguneroko parte hori bereiz egingo da prestakuntza-modulu bakoitzeko.

5.– Ikasleek ezingo dute ikastaro batean baja eman beste prestakuntza-ekintza bat hasteko. Ezin izango dute jarduera utzi harik eta bukatzen den arte, non eta ez duten enplegua aurkitzen eta horrek prestakuntza-ekintzara joatea eta probetxua ateratzea galarazten, edo ez zaien bat-bateko familia-egoera larriren bat sortzen (hori behar bezala justifikatu beharko da). Jarduera justifikaziorik gabeko beste arrazoiren batengatik utziz gero, gerta liteke pertsona horrek lehentaunik ez izatea etorkizuneko deialdietako prestakuntza-ekintzetan.

18. artikulua.– Ikasleak baztertzeko arrazoiak eta prozedura.

1.– Honako hauek izango dira ikasleak baztertzeko arrazoiak:

a) Justifikatu gabe hilabetean hirutan baino gehiagotan ez agertzea.

b) Prestakuntza-ekintza iraupen osoaren % 25etik gora huts egitea, arrazoi edozein dela ere, justifikatuta egon zein ez.

c) Probetxurik ez ateratzea prestakuntza-ekintzari, edo jokabide desegokia izatea, eragozten duena ekintza behar bezala egitea, barnean harturik osasun- eta higiene-arauak ere.

2.– Hau izango da ikasleak baztertzeko prozedura:

Prestakuntza-zentroak prestakuntzako teknikariari jakinaraziko dio baztertzeko arrazoietako bat gertatu dela, horretarako ezarri den eredu erabiliz. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak arrazoi hori ikusten badu, Enplegurako Lanbide Heziketaren zuzendariak baztertzeko prozedura hasteko erabakia emango du. Ikaslea baztertzeko proposamena egiteko gertaerak azalduko dira erabaki horretan, eta ikasleak bost egun baliodun izango ditu alegazioak aurkezteko. Enplegurako

Lanbide Heziketaren zuzendariak gehienez hamabost eguneko epean ebatziko du prozedura. Egoerak hala eskatzen badu, baztertze-prozedurari ekiteko erabakian behin-behineko neurriak har daitezke prestakuntza-jardueraren jarraipen egokia bermatzeko. Neurri horietako bat ikaslea ikastarotik behin-behinekoz baztertzea izan daiteke, prozedura abiatzeko erabakia jakinarazten zaionetik prozedura ebazten den bitartean. Ebazpenean adieraziko da zer errekurtsio aurkeztu daitekeen.

Asteren batean ikasleren baten asistentzia-faltak prestakuntza-ekintzaren ordu kopuruaren % 25 baino gehiago badira, edo justifikatu gabeko hiru asistentzia-falta baino gehiago egiten baditu hilabeteen, prestakuntza-zentroak horren berri emango dio Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Enplegurako Lanbide Heziketaren Zuzendaritzari, ikaslea baztertze prozedura has dezan. Modulu oso bat geratzen bada egiteko, eta % 25etik gora huts egitea arrazoi justifikatu batengatik gertatu bada (adibidez, gaixotzea edo lanean hastea), pertsona horrek geratzen den modulua egiteko aukera izatea aztertu ahal izango da.

Ikasleren batek prestakuntza-ekintzara joateari uzten badio eta asistentzia-falten % 25 hori gainditzen baldin badu, zentroak horren berri emango dio Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari, eta ofizioz emango zaio baja, baztertze-prozedura erabili beharrik gabe.

Prestakuntza-jarduera batetik kanporatzeak edo bajak ibilbideko parte-hartzaileen taldetik baztertzea ekarriko du ondorioz.

19. artikulua.– Prestakuntza-ekintzen ebaluazioa.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak deialdi honen kalitatea ebaluatuko du, kontuan hartuta ikasleek berek betetako galdetegiak lortutako batez besteko emaitzak, hala xedatzen baita Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren 2009ko apirilaren 27ko Ebazpenean (2009ko ekainaren 11ko BOE), enplegurako prestakuntza-ekintzen kalitatea ebaluatzeko galdetegiak argitaratzen dituen ebazpenean.

Galdetegi horiek telematikoki beteko dituzte ikasleek. Ikastaroa ematen duen entitatearen ardurak da ziurtatzea ekintza amaitu duten ikasleek kalitateari buruzko galdetegiak betetzen dutela; horretarako, behar diren baliabideak jarriko ditu parte-hartzaileen eskura, diruz lagundutako ikastaroa amaitzen duten ikasleei galdetegi telematikoa betetzen laguntzeko.

20. artikulua.– Dirulaguntza ordaintzea.

1.– Emandako dirulaguntza bi partetan ordainduko da, haiek eskatu eta gero, honela:

a) Lehen ordainketa (proiektuari dagokion dirulaguntza osoaren % 60), lehen jarduera hasi dela jakinarazi ostean. Ez da bermerik eratu behar Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren alde.

b) Bigarren ordainketa, emandako dirulaguntzaren gainerakoari dagokiona, diruz lagundutako jarduerak amaitu eta justifikatu ondoren.

2.– Administrazioak laguntzak ordaindu ahal izan ditzan, entitate onuradunak Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Sailaren Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren Hirugarrenen Erregistroan inskribatuta behar du.

Entitatea erregistratuta ez badago edo Ekonomia eta Ogasun Sailaren Hirugarrenen Erregistroan dauden banku-datuak aldatu nahi baditu, helbide honetan adierazitako urratsak egin behar ditu: <https://www.euskadi.eus/hirugarrenak>

21. artikulua.– Dirulaguntza justifikatzea.

Agindu honetan araututako laguntzak emateko egintzan ezarritako baldintzak bete direla eta aurreikusitako helburuak lortu direla justifikatzeko, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko 20/2023 Lege Orokorrean eta hura garatzen duen araudian ezarritako prozedurak erabiliko dira, eta abenduaren 30eko 36/2020 Errege Lege Dekretuaren 63. artikuluan aurreikusitako neurri bereziak aplikatuko dira, eta, hala badagokio, Europar Batasuneko araudi aplikagarria.

1.– Entitate onuradunak, bi hilabeteko epean, «Landa- eta hiri-inguruneetako emakumeei laguntzeko programaren» esparruko jarduerak amaitzen direnetik, diruz lagundutako jarduerak egin izanaren justifikazioa aurkeztu behar du, eta izandako gastuena, modulu bidezko erregimenaren bidez, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren Erregelamenduaren 69. artikuluan eta 76. artikulutik 79.era ezarritakoarekin bat.

Justifikazio horretan, jasotako dirulaguntzaren bidez betetako mugarrak eta helburuak justifikatzeko dokumentazio hau aurkeztu behar du entitate onuradunak, horretarako ezarri diren egiaztatze-mekanismoekin bat:

a) Dirulaguntza ematean ezarri ziren baldintzak bete ote diren justifikatzen duen memoria, egindako jarduerak eta lortutako emaitzak adierazten dituen. Memoriak honako hauek jasoko ditu:

1) Zerbitzatuaren izaera lortu duten parte-hartzaileen banakako ibilbidearen ziurtapena, hauek adierazten dituen: ibilbidea osatzen duten jarduerak; noiz egin diren; kompetentzia eta enplegu berdeak lortzea helburu izan ote duten; kompetentzia eta enplegu digitalak lortzea helburu izan ote duten; zer udalerritan egin diren; zerbitzatuak zenbat parte-hartzaile jo diren; kompetentzia eta enplegu berdeak lortzeko prestakuntzako parte-hartzaileen kopurua eta ehunekoa; eta kompetentzia eta enplegu digitalak lortzeko prestakuntzako parte-hartzaileen kopurua eta ehunekoa.

2) Formalizatutako kontratuak egiaztatzeko eta langile autonomo gisa edo norberaren kontura jarduten hasi diren eta laneratuen izaera lortu duten parte-hartzaileen kopurua egiaztatzeko ziurtagiria, honako hauek zehaztuta: laneratutako parte-hartzaileen kopurua eta ehunekoa, eta, lortutako enplegu guztien artean, enplegu berdeen kopurua eta ehunekoa eta enplegu digitalen kopuru eta ehunekoa.

b) Memoria ekonomikoa, egindako jardueren kostua justifikatzeko, lortutako emaitzen arabera. Alderdi hauek jasoko ditu, gutxienez:

1) Onuradunaren egiaztapena edo adierazpena, modulutzat jotzen diren unitate fisikoen kopuruari buruzkoa, 5. artikuluan aurreikusitakoarekin bat, horretarako datu hauek adierazita:

Zerbitzua hartutakotzat jotzen diren parte-hartzaileen kopurua, 3.5 artikuluan zehaztutakoaren arabera.

Zerbitzua hartu eta besteren konturako laneratuen izaera lortu duten parte-hartzaileen kopurua eta ehunekoa, 3.6 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Zerbitzua hartu eta norberaren konturako laneratuen izaera lortu duten parte-hartzaileen kopurua eta ehunekoa, 3.6 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Era berean, honako hauek adieraziko dira:

Kompetentzia eta enplegu berdeak lortzea helburu duen banakako ibilbideko parte-hartzaileen kopurua eta ehunekoa.

Konpetentzia eta enplegu digitalak lortzea helburu duen banakako ibilbideko parte-hartzaileen kopurua eta ehunekoa.

2) Jarduketa-memorian kuantifikatutako jarduerak eta 5. artikuluan ezarritako moduluak oinarritzat hartuta kalkulaturako dirulaguntza justifikatuaren zenbateko osoa, artikuluko horretan ezarritako modulu bidezko kalkulatzeko eta kuantifikatzeko sistemaren arabera. Dirulaguntzaren likidazioa zerbitzua hartutakotzat jotzen diren parte-hartzaileen arabera egingo da, baita laneratutzat jotzen direnen arabera ere. Likidazioak ez du inola ere gaitutako hasieran emandako dirulaguntzaren zenbatekoa. Kalkuluak egiteko, aintzat hartuko da, batetik, zerbitzaturtat jotako parte-hartzaileen kopurua, dagokion modulu ekonomikoarekin biderkatuta, eta, bestetik, norberaren edo besteren kontura laneratutzat jotako kopurua, kasuan-kasuan dagokion modulu ekonomikoarekin biderkatuta.

3) Beste sarrera edo dirulaguntza batzuen xehetasunak, diruz lagundutako jarduera finantzatzeko erabili badira, zenbatekoa eta jatorria adierazita, eta, hala badagokio, justifikatutako zenbatekoaren eta aurrerakin gisa jasotakoaren arteko aldeari dagokion zenbatekoa sartu izanaren egiaztatzea.

Entitate onuradunek frogagiriak eta finantzaketari dagokion gainerako dokumentazioa bost urtez gorde beharko dituzte, eragiketa egiten denetik aurrera, edo, bestela, dirulaguntzaren zenbatekoa 60.000 eurotik beherakoa bada, hiru urtez. Formatu elektronikoan gorde beharko dira, eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren uztailaren 18ko (EB, Euratom) 2018/1046 Erregelamendu edo «Finantza Erregelamenduaren» 132. artikuluan ezarritakoa bete beharko dute gordetzeko.

2.– Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu batekina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuko 23.3.d) artikuluan xedatutakoa betez, entitate onuradunen titularrei eta haien plantillari buruzko informazioa emango da dirulaguntzak ematean ezarritako betebeharrak betetzen direla egiaztatzen duten memorietan, sexuaren arabera banakatuta.

22. artikulua.– Dirulaguntza emateko ebazpena aldatzea.

Inola ere ezin izango da aldatu dirulaguntzaren erabilera edo xedea, ez eta emandako laguntzarekin lortu nahi diren helburuak ere, eta ezin izango da aldatu dirulaguntzaren xede den jarduera, jarduketa edo jokabidea, ezta emakida-ebazpenean agertzen den eta lortu den dirulaguntzaren zenbatekoa handitu ere. Onuradunak proposatu edo eskaini dituen eta dirulaguntza emateko balio izan duten alderdiak ere ezin izango dira aldatu.

Luza daiteke proiektua gauzatzeko epea, horretarako arrazoiak egonez gero, eta horrek ez badio eragiten suspertze-planean proiektu honi jarritako helburuak betetzeari, ez eta hirugarrenen eskubideei ere.

23. artikulua.– Dirulaguntzak itzultzea.

1.– Ezin izango da eskatu dirulaguntza ordaintzeko, eta, kasu batzuetan, jasotako kopuru osoak edo horien zati bat itzuli beharko dira eta dirulaguntza ordaindu den unetik aurrera aplikatzekoak diren berandutze-interesak eskatuko dira, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 37. artikuluan eta Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 36. artikuluan aurreikusten diren kasuetan eta deialdi honetan berariaz aurreikusten diren kasuetan.

Eta, bereziki, kasu hauetan:

a) Jarduera egin izana eta laguntza emateko edo baliatzeko baldintzak eta betekizunak bete izana justifikatzeko betebeharra ez betetzea.

b) Dirulaguntza lortzea horretarako eskatutako baldintzak bete gabe.

c) Jarraipen- eta kontrol-jarduketak ukatzea edo oztopatzea.

d) Diruz lagundutako ekintzak gauzatzeko baldintzei buruz datu faltsuak ematea, errealitatea-rekin bat ez datozenak.

e) Deialdi honen 16. artikuluan jasotako komunikazio- eta hedapen-betebeharrak ez betetzea.

f) Deialdi honetan ezarritako beste edozein betebeharrak, baldintza eta betekizun ez betetzea eta, bereziki, egin beharreko jarduketak eta haien ondoriozko kostu justifikatuak neurri batean ez egi-tea. Hartutako laneratze-konpromisoaren ehuneko 25 baino txikiagoa bada laneratzea, dena itzuli beharko da, eta laguntza emateko ebazpenean eskatutako laneratze-ehunekoaren eta ehuneko 25aren artean badago, ez-betetzearen ehunekoaren proportzioan itzuli beharko da laguntza.

g) DNSH printzipioa betetzen ez bada, onuradunak ordura arte jasotako zenbatekoak itzuli beharko ditu, abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan ezarritako moduan. Dekretu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kargura ematen diren laguntzen bermeen eta itzulketen araubide orokorra arautzen da, eta kudeaketan parte hartzen duten entitate laguntzai-leen baldintzak, araubidea eta obligazioak ezartzen dira.

Jasotako zenbatekoak itzuli behar dira, halaber, mugarriak, helburuak edo egutegia betetzen ez direnean, interes-gatazken adierazpenak izaten direnean edo SEEP-NextGenerationEU arautegiarekin lotutako beste edozein alderdi betetzen ez denean, 2024ko Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren abenduaren 22ko 21/2023 Legean eta Administrazio Publikoa modernizatzeko eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana gauzatzeko premiazko neurriak onartzen dituen abenduaren 30eko 36/2020 Errege Lege Dekretuaren 37.4 artikuluan aurreikusitakoaren arabera. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko (EB) 2021/241 Erregelamendua ere kontuan hartu behar da, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen duena.

2.– Dirulaguntzak itzultzeko prozedurak bat etorri beharko du Dirulaguntzen Araubidea Erregulatze-ko abenduaren 21eko 20/2023 Legearekin eta hura garatzeko araudiarekin.

3.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Enplegurako Lanbide Heziketaren zuzendariak abiaraziko du laguntza itzultzeko prozedura, eta laguntzaren entitate onuradunari jakinaraziko dio eta ez-betetzea eragin duen gertaeraren edo gertaeren berri emango. Hori ez ezik, egokitze jotako alegazioak edo egiaztagiriak aurkezteko hamabost eguneko epea duela ere jakinaraziko dio.

4.– Alegazioak aurkeztu ondoren edo alegazio horiek aurkezteko epea igaro ondoren, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Enplegurako Lanbide Heziketaren zuzendariak ebazpena emango du.

Laguntzak itzultzeko prozedura gehienez hamabi hilabeteko epean ebatzi beharko da.

5.– Ebazpenean, ez-betetzerekin bat izan dela iritzi gero, dirulaguntza jasotzeko eskubidea galdutzat emango da, eta, hala badagokio, dagozkion diru kopuruak itzuli beharko dizkio onuradunak Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari, ebazpena jakinarazten denetik bi hilabete igaro baino lehen. Epe hori borondatezko epea izango da.

Itzuli beharrekoa borondatezko epean itzultzen ez bada, premiamendu bidez berreskuratzeko izapideak hasiko dira.

24. artikulua.– Datuak babesteari buruzko informazioa.

Datu pertsonalen babesaren arloan, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak bi araudi hauen araberak jokatuko ditu: Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra (EB 2016/679 Erregelamendua) eta Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko 3/2018 Lege Organikoa. Lortzen diren datu pertsonalak «Enplegurako eta enpleguko prestakuntzarako dirulaguntzak» izeneko tratamendu-jardueraren barruan egongo dira. Jarduera horren arduraduna Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua da, eta jardueraren helburua da Lanbideren eskumeneko enplegu-politika aktiboekin zerikusia duten dirulaguntzak kudeatu eta kontrolatzea, bai eta iruzurrari jazartzea eta datuak estatistiketan erabiltzea ere. Biltzen diren datuak beharrezkoak dira Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari emandako botere publikoak gauzatzeko eta lege-betebeharrak betetzeko, eta arlo horretan eskumena duten administrazio publikoei komunikatu ahal izango zaizkie.

Datuen titularrek datuak irispidean izateko, zuzentzeko eta ezerezteko eta informazioaren tratamendua mugatzeko eta tratamenduaren aurka egiteko eskubideak erabili ahal izango dituzte tratamenduaren arduradunaren aurrean, datuen babesaren arloko eskubideak baliatzeko prozeduraren bidez. Prozedura hori www.euskadi.eus/servicios/10842/ helbidean argitaratu da.

Datuen babesari buruzko informazio osagarri eta zehatza kontsultatzeko: <https://www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/074300-capa2-eu.shtml>

25. artikulua.– Aplikatu beharreko araudia.

1.– Deialdi honetan aurreikusitako dirulaguntzei hauek aplikatuko zaizkie: batetik, urriaren 11ko TES/1121/2021 Aginduan xedatutakoa (agindu horren bidez, oinarriak ezartzen dira «Landa- eta hiri-inguruneetako emakumeei laguntzeko Programa» finantzatzeko dirulaguntza publikoak emateko, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren markoan), eta, bestetik, dirulaguntzen legedi orokorra, hau da, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra, eta hori garatzen duen erregelamendua, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onetsitakoa, non oinarriko legegintza osatzen duten Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legeak eta 698/1991 Dekretuak (698/1991 Dekretua, abenduaren 17koa, Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren pentzudan ematen diren dirulaguntzen bermeei eta horiek itzultzeari buruzko erregimen orokorra arautzen duena eta horien kudeaketan parte hartzen duten entitate laguntzaileek bete beharreko baldintzak, erregimena eta eginbeharrak ezartzen dituen).

2.– Laguntza hauek, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoak finantzatzen dituzenez, arau hauetan xedatutakoa ere bete behar dute:

EB 2021/241 Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2021eko otsailaren 12koa, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen duena.

36/2020 Errege Lege Dekretua, abenduaren 30ekoa, zeinaren bidez presako neurriak onesten baitira Administrazio Publikoa modernizatzeko eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana gauzatzeko.

HFP/1030/2021 Agindua, irailaren 29koa, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana kudeatzeko sistema eratzen duena.

TES/897/2021 Agindua, abuztuaren 19koa, zeinaren bidez Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoarekin finantzatutako kredituak lurraldeka banatzen baitira, 2021eko ekitaldi ekonomikorako, lan-arloan eskumenak dauzkaten autonomia-erkidegoek kudea ditzaten; kreditu horiek Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planeko «Konpetentzia Digitalen Plan Nazionala» eta «Lan-merkatua dinamikoa, erresilientea eta inklusiboa izateko politika publiko berriak» inbertsio-proiektuak gauzatzeko dira.

HFP/1031/2021 Agindua, irailaren 29koa, Estatuko, autonomia-erkidegoetako eta tokiko sektore publikoko entitateek informazioa emateko prozedura eta formatua ezartzen dituen Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren ataletako neurrien mugari eta helburuak zenbateraino betetzen diren jakiteko jarraipena egiteko eta neurrien aurrekontu- eta kontabilitatea-betearazpenaren jarraipena egiteko.

21/2023 Legearen II. tituluaren V. kapitulua (21/2023 Legea, abenduaren 22koa, Euskal Autonomia Erkidegoko 2024. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen).

698/1991 Dekretua, abenduaren 17koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren pentzudan ematen diren dirulaguntzen bermeei eta horiek itzultzeari buruzko erregimen orokorra arautzen duena eta horien kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileek bete beharreko baldintzak, erregimena eta eginbeharrak ezartzen dituen.

HFP/55/2023 Agindua, urtarrilaren 24koa, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana beteazten duten prozeduretako interes-gatazken arriskuaren analisi sistematikoari buruzkoa.

3.– Era berean, hauek aplikatuko zaizkie enplegurako lanbide-heziketako prestakuntza-ekin-tzak diren jarduketa diruz lagunduei: 30/2015 Legea, irailaren 9koa, Lan-arloko enplegurako lanbide-heziketaren sistema arautzen duena; 3/2022 Lege Organikoa, martxoaren 31koa, Lanbide Heziketa Antolatu eta Integratzekoa; 659/2023 Errege Dekretua, uztailaren 18koa, Lanbide Heziketako Sistemaren Antolamendua garatzen duena; 694/2017 Errege Dekretua, uztailaren 3koa, zeinaren bitartez 30/2015 Legea garatzen baita, irailaren 9koa, Lan-arloko enplegurako lanbide-heziketaren sistema arautzen duena Lanbide Heziketa Antolatu eta Integratzeko martxoaren 31ko 3/2022 Lege Organikoaren kontra ez doan guztian; eta TMS/368/2019 Agindua, martxoaren 28koa, zeinaren bidez uztailaren 3ko 694/2017 Errege Dekretua garatzen baita, irailaren 9ko 30/2015 Legea garatzen duena. Profesionaltasun-ziurtagiriak lortzeko prestakuntza-ekintzei 659/2023 Errege Dekretuan xedatutakoa aplikatuko zaie (659/2023 Errege Dekretua, uztailaren 18koa, Lanbide Heziketako Sistemaren Antolamendua garatzen duena).

4.– Hauek ere aplikatuko dira:

Gobernu Kontseiluaren Erabakia, 2022ko otsailaren 8koa, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planari lotutako jardueren eta proiektuen aurrekontu- eta kontabilitate-betearazpenari, kudeaketari eta jarraipenari buruzkoa, zeina argitara eman baitzen Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariaren martxoaren 1eko 30/2022 Ebazpenaren bidez (2022ko martxoaren 4ko EHAA, 46. zk.).

Gobernu Kontseiluaren Erabakia, 2022ko martxoaren 29koa, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana egikaritzeko eskatzen diren iruzurraren aurkako borrokari, interes-gatazkei, finantzaketa bikoitzari eta estatu-laguntzei buruzko betekizunak eta ingurumenari kalte nabarmenik ez egitekoak betetzeko neurrien plana onartzen duena; Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariak erabaki hori argitaratzeko emandako apirilaren 6ko 40/2022 Ebazpenaren bidez argitaratu zen plan hori (2022ko apirilaren 13ko EHAA, 74. zk.).

5.– Era berean, entitate onuradunek nahitaez bete beharko dituzte laguntza ematen duen administrazioak eta Estatuko eta Europako gainerako agintari eskudunek xede horretarako ezarritako arauak, bai eta aipatutako finantzaketa-iturrien arabera laguntza hauen onuradun izateagatik ezarritako betebeharrak guztiak ere.

26. artikulua.– Iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkek izateko arriskua prebenitzea.

Balitzko onuradunak hautatzeko prozesuan edo baldintzak betetzen direla egiaztatzeko prozesuetan parte hartzen duten pertsonen adierazi behar dute osorik eta inolako erreserbarik gabe

ezagutzen eta onartzen dituztela 2022ko martxoaren 29ko Gobernu Kontseiluaren Erabakiaren bidez onetsitako planaren baldintzak; alegia, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana egikaritzeko eskatzen diren iruzurraren aurkako borrokari, interes-gatazkei, finantzaketa bikoitzari eta estatu-laguntzei buruzko eskakizunak eta ingurumenari kalte nabarmenik ez egitekoak betetzeko neurrien planaren baldintzak. Aurreko apartatuan xedatutakoaren ondorioetarako, dirulaguntza emateko eskumena duen organoaren arduradunak, dirulaguntzaren oinarriak edo deialdia idazten dituzten langileek, eskaerak ebaluatzen dituzten aditu eta batzordekideek, baita jarduera horietan Administrazioari laguntza eta aholkularitza ematen dioten entitate pribatueta pertsona fisiko guztiek ere, iruzurraren aurkako neurrien plana ezagutu eta onartu behar dute.

Urtarrilaren 24ko HFP/55/2023 Aginduan adierazitako ondorioetarako, agindu horretan ezarritako prozedurak aplikatuko dira. Gainera, agindu hori betetzeko, dirulaguntzak emateko organo eskudunak eta eskaerak aztertzeko kide anitzeko organoetako kideek interes-gatazkarik ezaren adierazpena sinatu behar dute, agindu horretan bereziki arautua eta III. eranskinari atxikia, eska-bideak aztertzeko eta erabakia hartzeko fasean. Eragiketaren arduradunak, gainera, HFP/55/2023 Aginduaren 4. artikuluan xedatutakoaren arabera bete behar du interes-gatazka izan daitekeena egiaztatzeko prozesua. Prozesu horretan bandera beltz bat edo batzuk detektatzen badira, HFP/55/2023 Aginduaren 7. artikuluan xedatutako prozedurari jarraitu behar diote. Horretarako, eskatzaileei benetako titulartasunari buruzko informazioa bost egun baliodun igaro baino lehen aurkezteko eskatu behar diete, eta, epe horretan aurkeztu ezean, prozeduratik kanpo utziko dituzte.

Aurreko apartatuetan aipatutako pertsonen Interes Gatazkarik Ezaren Adierazpena (IGEA) beteko dute (oinarri hauekin batera jaso da, III. eranskin gisa), hala egin behar dela ezartzen baita Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018ko uztailaren 18ko (EB, Euratom) 2018/1046 Erregelamenduaren (Finantza Erregelamendua) 61.3 artikuluan eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikuluan.

Prozeduraren batean interes-gatazkek eragiteko arriskua dakarren kasuren batean dauden agintari eta langileek ez dute esku hartuko dena delako prozedura horretan. Norbaitek uste badu interes-gatazkaren bat egon daitekeela, hierarkian gorago dagoenari jakinaraziko dio, idatziz; zerbitzu juridikoek txostena egingo dute, eta hartu beharreko erabakia hartuko da. Horrek ez du eragozten HFP/55/2023 Aginduan ezarritako kasu zehatzetarako ezartzen den prozedura berezia betetzea.

Kontrol Ekonomikoko Bulegoak, bere kabuz edo Estatuko Administrazioaren Kontu Hartzailtza Nagusiarekin lankidetzan arituz (III. maila), auditoria espezifikoak egin ditzake interes-gatazkek prebenitzeko, atzemateko eta zuzentzeko neurri egokirik ote dagoen ikusteko.

Interes-gatazka bat hautematen denean, kasu bakoitzean aplikatzekoak diren legezko arauen eta barne-erregelamenduen araberako neurriak hartuko dira. Era berean, interes-gatazkaren egoeraren berri eman beharko da betiere, gardentasun-printzipioa betetzeko.

I. ERANSKINA

BENETAKO TITULARTASUNARI BURUZKO ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAREN
EREDUA

_____ jaunak/andreak (NAN: _____),
_____ entitatearen titular/ordezkarari den aldetik (IFZ:
_____; zerga-egoitza:
_____), eta SEEPetik
datozen baliabideen hartzaile den aldetik _____ (deialdiaren izena) izeneko
jardueraren esparruan,

ADIERAZTEN DU:

Lehenengoa.– Badakiela irailaren 29ko HFP/1031/2021 Aginduak 8. artikuluan zer xedatzen duen, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko (EB) 2021/241 Erregelamenduaren 22.d) artikuluko eskakizuna betetzeko; erregelamendu horren bidez, funtsen azken hartzailearen identifikazioari buruzko informazioa eman behar da (funtsen hartzailearen izen-abizenak eta benetako titularren jaioteguna, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2015/849 (EB) Zuzentarauaren 3. artikuluan 6. puntuan benetako titularrak ematen duen definizioa kontuan hartuta).

Bigarrena.– Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EB) 2015/849 Zuzentarauaren 3. artikuluko 6. puntuan adierazitakoaren arabera honako hauek direla benetako titularrak (hau da, jabetza edo azken buruan bezeroaren kontrola duten pertsona fisikoak edo beren kontura transakzio edo jarduerak (1) egiten diren pertsona fisikoak):

1 Pertsona juridikoen kasuan, gutxienez hauek hartuko dira kontuan, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EB) 2015/849 Zuzentarauaren 3. artikuluan 6. puntuaren arabera:

(i) <<Azken batean pertsona juridiko baten jabetza edo kontrola du(t)en pertsona fisiko(a)(k); zehazki, entitate horretako akzioen —eramailearentzako akzioen zorroak barne— edo boto-eskubideen edo jabetza-eskubideen behar adinako ehunekoaren zuzeneko edo zeharkako jabetzaren bidez edo beste bitarteko batzuen bidezko kontrolaren bidez dutenak, salbu eta merkatu arautu batean kotizatzen duten sozietateak, Batasuneko Zuzenbidearekin bat datozen informazio-eskakizunen edo jabetzari buruzko informazioaren gardentasun egokia bermatzen duten nazioarteko arau baliokideen mende dauden sozietateak. Pertsona fisiko batek kapital sozialean % 25eko partaidetza eta akzio bat izatea edo % 25etik gorako jabetza-eskubidea izatea zuzeneko jabetzaren adierazgarri izango da. Pertsona fisiko baten edo batzuen kontrolpean dagoen sozietate batek edo pertsona fisiko beraren edo batzuen kontrolpean dauden sozietate anitzek bezeroaren kapital sozialean % 25eko partaidetza eta akzio bat izatea edo % 25etik gorako jabetza-eskubidea izatea zeharkako jabetzaren adierazgarri izango da. Estatu kideek duten eskubidea alde batera utzi gabe aplikatuko da aurreko hori, hau da, ehuneko txikiago bat jabetzaren edo kontrolaren adierazgarri izan daitekeela erabakitzeke haien duten eskubidea alde batera utzi gabe. «Beste bitarteko batzuen bidezko kontrolik» dagoen, besteak beste, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013/34/EB Zuzentarauaren 22. artikuluko 1. apartatutik 5. apartatura bitartean ezarritako irizpideen arabera zehaztu ahal izango da>>».

Ahal diren bitarteko guztiak baliatu ondoren i) letraren arabera inor identifikatzen ez bada eta ezeren susmorik ez badago, edo identifikatutako pertsona edo pertsonak benetako titularrak ote diren zalantzarik badago, goi-mailako zuzendaritza-kargua betetzen duen pertsona fisikoak eta betebeharreko entitateek benetako titulartasuna nork duen identifikatzeko hartutako neurrien erregistroak gordeko dituzte, i) letraren eta tarteki honen arabera.

2024ko martxoaren 27a, asteazkena

BENETAKO TITULARTASUNA				
Bazkidearen edo akziodunaren izen osoa	NAN/AIZ/Pasaporteia	Nazionalitatea edo egoitza soziala	Jaioteguna	Parte-hartzea (%)

Hirugarrena.– Badakiela ezen, eskatuz gero, benetako titularraren/titularren notario-aktaren kopia entregatu beharko diola Eusko Jaurlaritzako entitate betearazleari, azken esleipenduna edo hartzailea merkataritza-sozietate bat bada, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko (EB) 2021/241 Erregelamenduan eta irailaren 29ko HFP/1031/2021 Aginduan ezarritakoaren arabera.

_____ (e)n, 20____ (e)ko _____ aren _____ (e)(a)n

Izenpetua:

Kargua: _____

II. ERANSKINA

INGURUMENARI KALTE NABARMENIK EZ ERAGITEKO ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA
(DNSH PRINTZIPIOA)

..... jaunak (1) /andreak, bere izenean edo
(operadore ekonomikoa) ordezkatuz (operadore ekonomikoaren IFZ:),
..... zenbakiko espedientea duen lizitazio-prozedurari / dirulaguntza-deialdiari buruz

Lehenengoa.– Baldintza hauek betetzen dituela:

1.– Egingo diren jarduerak ez diete kalte nabarmenik eragiten ingurumeneko helburu hauei, (EB) 2020/852 Erregelamenduaren 17. artikulua araberak (ingurumenaren aldetik jasagarriak diren jardura ekonomikoak sailkatzeko sistema (edo «taxonomia») ezarriz inbertsio jasagarriak errazteko esparru bat ezartzeari buruzkoa da erregelamendu hori):

Klima-aldaketa arintzea.

Klima-aldaketara egokitzea.

Baliabide hidrikoak eta itsas baliabideak modu jasagarrian erabiltzea eta babestea.

Ekonomia zirkularra, barnean direla hondakinen prebentzioa eta birziklatzea.

Atmosferako, uretako edo lurzoruko kutsadura prebenitzea eta kontrolatzea.

Biodibertsitatea eta ekosistemak babestea eta lehengoratzea.

2.– Jarduerak bat datoz, hala dagokionean, osagaiaren neurrirako eta azpineurritako ezarrita dauden eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planean jasota dauden ezaugarrietara eta baldintzetara.

3.– Proiektuaren barruan egiten diren jarduerak indarrean dagoen eta aplikatu behar den ingurumen-arloko araudia beteko dute.

¹ Operadore ekonomiko bik edo gehiagok batera aurkezten badute eskaintza, eta konpromisoa adierazten badute adjudikaziodun izanez gero ABEEa formalki eratzeko, operadore guztien ordezkariek sinatu beharko dute deklarazio hau.

- 4.– Gauzaten diren jarduerak ez daude baztertuta planaren finantzaketatik, «kalte nabarmenik ez eragiteko» printzipioa aplikatzeari buruzko gida teknikoaren arabera, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoari buruzko Erregelamenduari (2021/C58/01), Espainiako Suspertze eta Erresilientzia Planaren ebaluazioa onartzeari buruzko Kontseiluaren Betearazpen Erabakiaren Proposamenari eta hari dagokion eranskinari jarraikiz.
- 5.– Garatutako jarduerak ez daukate zuzeneko ondoriorik ingurumenean, ezta zeharkako ondorio primarioak ere haien bizi-ziklo osoan zehar. Halakotzat jotzen dira amaitu ondoren, jarduera egin eta gero, agertu ahal direnak.

Bigarrena.– Badaki eta onartzen du adierazpen honetan ezarritako baldintzaren bat betetzen ez bada jasotako zenbatekoak eta dagozkien berandutze-interesak itzuli beharko dituela.

_____ (e)n, 20____ (e)ko _____ aren _____ (e)(a)n

Izenpetua:

INTERES-GATAZKEI BURUZKO ERANSKINAK
(HFP/55/2023 AGINDUA, 2023KO URTARRILAREN 24KOA)

III. ERANSKINA

Interes Gatazkarik Ezaren Adierazpenaren eredia

(HFP/55/2023 Agindua)

Azpiproiektua: C23.I02.P01.S03 País Vasco - Landa- eta hiri-inguruneetako emakumeei laguntzea

Tresna juridikoa: EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO LANDA- ETA HIRI-INGURUNEETAKO EMAKUMEEI LAGUNTZEKO PROGRAMA GARATZEKO LAGUNTZEN BIGARREN DEIALDIA. EHAA (data)

Espedientea (zenbakia eta izena):

Onuradunaren izena, abizenak eta IFZ:

Kargua:

Izen-abizenak:

IFZ:

Horago aipatutako kontratazio/dirulaguntzaren prozeduran inpartzialtasuna bermatze aldera, sinatzaileak/sinatzaileek, espedientea kudeatu eta egikaritzeko prozesuan parte-hartzaile den/diren aldetik, hau adierazi nahi du/dute:

Lehenengoa.

Badu(t)ela hauen berri:

- 1.– (EB, Euratom) 2018/1046 Erregelamenduaren 61.3 artikulua ezartzen duenez –(EB, Euratom) 2018/1046 Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, uztailaren 18koa (EBko finantza-erregelamendua); 61.3 artikulua, «Interes-gatazkak» izeneko-, kasu honetan dago interes-gatazka: «funtzioak inpartzialki eta objektiboki betetzea kolokan dagoenean familia-arrazoiengatik, afektibitate-arrazoiengatik, kidesun politiko edo nazionalengatik, interes ekonomikoengatik edo interes pertsonaleko zuzeneko edo zeharkako edozein arrazoiengatik».
- 2.– Sektore Publikoko Kontratuaren azaroaren 8ko 9/2017 Legeak, Espainiako ordenamendu juridikora Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duenak, honela definitzen du interes-gatazka, 64. artikuluan («Ustelkeriaren aurkako borroka eta interes-gatazken prebentzioa»): «Kontratazio-organoarentzat lan egiten duten eta aldi berean lizitazio-prozeduran parte-hartze bat izan dezaketen edo haren emaitzan eragina izan dezaketen langileen edozein egoera, lizitazio-prozeduraren testuinguruan haien inpartzialtasuna edo independentzia itxura batean zalantzatan jar dezakeena interes finantzario, ekonomiko edo pertsonala zuzenean edo zeharka izateagatik».



3.– 31/2022 Legeak (31/2022 Legea, abenduaren 23koa, 2023rako Estatuko Aurrekontu Orokorrena) hau ezartzen du ehun eta hamabigarren xedapen gehigarriaren 3. apartatuan: «Interes-gatazkaren arriskuaren analisi sistematiko eta automatizatu aplikatuko zaie entitate erabakitzaileen, betearazleen eta instrumentalen zerbitzura dauden enplegatu publikoei eta gainerako langileei, baldin eta, banaka edo kide anitzeko organoetako kide gisa, kontratuak adjudikatzeko edo dirulaguntzak emateko deskribatutako prozeduretan parte hartzen badute».

4.– Aipatutako ehun eta hamabigarren xedapen gehigarriaren 4. apartatuak hau ezartzen du:

- «Tresna informatikoaren bidez, familia-harreman edo sozietate-lotura zuzenak edo zeharkakoak aztertuko dira, interes-gatazka ekar dezaketen interes pertsonal edo ekonomikoei bide eman diezaieketenak aurreko apartatuan aipatzen diren pertsonen eta prozedura bakoitzeko parte-hartzaileen artean».
- «Harremanak edo loturak identifikatzeko, tresnak, besteak beste, datu hauek beharko ditu: otsailaren 12ko (EB) 241/2021 Erregelamenduaren 22.2.d.iii) artikuluan aipatzen diren pertsona juridikoen titulartasun errealeko datuak —Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren datu-baseetan daude— eta notarioen eta erregistrozko elkargoekin sinatutako hitzarmenen bidez lortutakoak».

Bigarrena.– Adierazpen hau sinatzean, eta bere esku dagoen informazioa kontuan hartuta, ez dagoela/daudela sartuta ehun eta hamabigarren xedapen gehigarriaren laugarren apartatuan aurreikusitako eran interes-gatazkatzat jo daitekeen eta dirulaguntzak lizitzeko/emateko prozeduran eragina izan dezakeen egoeraren batean.

Hirugarrena.– Abian den prozeduraren edozein unetan edozein interes-gatazka sortzen bada eta halakoen berri badu(te) kontratazio-organoa / ebaluazio-batzordea jakinaren gainean jarriko du(t)ela, atzeratu gabe.

Laugarrena.– Badaki(t)ela aplikatzekoa den araudiak ezartzen dituen ondorio diziplinarioei, administratiboei eta judizialei aurre egin beharko die(te)la Interes Gatazkarik Ezaren Adierazpena faltsua dela frogatzen bada.

(Data eta sinadura, izen osoa eta NANA)

III.2 ERANSKINA

Interes-gatazkarik ez dagoela berresteko eredia

Azpiproiektua: (zenbakia eta izena):

Tresna juridikoa:

Espedientea (zenbakia eta izena):

Onuradunaren izena, abizenak eta IFZ:

Kargua:

Izen-abizenak:

IFZ:

Interes-gatazka egoteko arriskua aztertu dugu, Minerva tresna informatikoaren bidez, urtarrilaren 24ko HFP/55/2023 Aginduan ezarritako eran, agindu horrek arautzen baitu Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana gauzatzeko prozeduretan interes-gatazka izateko arriskua sistematikoki nola aztertu (agindu hori 2023. urterako Estatuko Aurrekontu Orokorren abenduaren 23ko 31/2022 Legearen ehun eta hamabigarren xedapen gehigarria aplikatuz eman zen). Bada, arriskua aztertu ondoren, bandera gorri bat detektatu denez (bandera gorriaren deskribapena, eta bandera hori jarrarazi duten eskatzaileen zerrenda), berriro diot ez dagoela inongo egoerarik prozeduran izango dudan jardunbide objektiboa auzitan jarriko duen interes-gatazkarik eragin dezakeenik.

III.3 ERANSKINA

Interes-gatazkaren arriskua zer eskaeratan aztertu hautatzeko arauak, konkurrentzia masiboko dirulaguntzak emateko prozeduretan betetzekoak

Konkurrentzia masiboko dirulaguntzen kasuan (ehun eskabide baino gehiago), interes-gatazkaren arriskua honela aztertuko da, agindu arautzaileak edo dirulaguntzak emateko deialdi zehatzak ezartzen duenetik abiatuta:

A) Ez dago aukerarik emandako dirulaguntza bakar bat ere azkenean 10.000 eurotik gorakoa izateko: kasu honetan, eragiketaren organo arduradunak bi aukera izango ditu; edo eskatzaile guztientzat aztertzea interes-gatazkaren arriskua, edo ehun eskaera hautatzea eta egiaztatzea, honela:

- 1.– Eskabide guztiak sarrera-egunaren eta -orduaren arabera ordenatu behar dira.
- 2.– Eskabideen kopuru guztiaren eta 100en arteko zatiketa egin behar da, eta hortik ateratako emaitza izango da egiaztatzeko hautatuko diren eskabideen arteko tartea; zatidura zenbaki osoa ez bada, dezimalak kenduko zaizkio.
- 3.– Lehendabiziko eskabidea hautatuko da, eta, ondoren, lehenengo horretatik hasita, ordenan, lortutako tartea ondoz ondo gehituz tokatzen diren eskabide guztiak hautatu behar dira, ehun eskabidetara iritsi arte. Eragiketaren arduradunak, betiere, aztertzeko hautatutako eskatzaileei buruzko auditoretza-pista atxiki behar du, eta behar bezala dokumentatu beharko du hautaketa hori egiteko emandako pausoak.

Adibide gisa, sistemaren aplikazioa errazte aldera, adibide bat proposatzen da. Eman dezagun 3.532 eskabide aurkeztu direla. Ehun zenbakiaz zatituta, 35,32 da emaitza. Zenbaki osoa ez denez, biribildu egingo dugu, dezimalak kenduta. 35 da emaitza. Horrela, 1. eskabidea, 36. eskabidea, 71. eskabidea eta 106. eskabidea hautatuko lirateke, eta, hurrenez hurren, ehun eskabide izan arte.

B) Deialdi jakin baten kontura emandako dirulaguntzen bat azkenean 10.000 eurotik gorakoa izan daiteke: kasu horretan, eskaera guzti-guztiak aztertuko dira, eskaera bakoitzari azkenean emango zaion zenbatekoa edozein dela ere.

IV. ERANSKINA

IRUZURRAREN AURKAKO POLITIKA EZAGUTZEN DELAKO ETA HAREKIN BAT
EGITEN DELAKO ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

_____ jaunak/andreak, bere izenean edo _____
ordezkatuz,

HAU ADIERAZTEN DU:

Lehenengoa.- Iruzurraren aurkako neurrien plan propioa dutela, eta hura bat datorrela Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen duen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko (EB) 2021/241 Erregelamenduan eta irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduan xedatutakoarekin, Kontu Hartzailtza Nagusiek eta Zerbitzu Juridikoek Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoen arloan ematen dituzten gomendioekin, ente publikoetako kontrol-organo baliokideekin eta jarraibideekin, bai eta EBk iruzurraren aurka ezartzen duenarekin ere.

Halakorik ezean, bat egiten dute Eusko Jaurlaritzaren *Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana egikaritzeko orduan iruzurraren, interes-gatazken, finantzaketa bikoitzaren eta estatu-laguntzen kontra egiteko eta ingurumenari kalte nabarmenik ez egiteko eskatzen diren baldintzak betetzeko neurrien planarekin*, zeina Gobernu Kontseiluak 2022ko martxoaren 29an onartu baitzuen.

Bigarrena.- Iruzurren aurkako politikaren edukia ezagutzen dutela, baita xede horretarako betebeharrak ere, eta ahalik eta publizitaterik handiena emateko konpromisoa hartzen dutela.

Hirugarrena.- _____ jauna/andrea izendatzen duela iruzurraren aurkako borrokaren arloan Eusko Jaurlaritzarekin hitz egiteko solaskide.

_____ (e)n, 20____ (e)ko _____ aren _____ (e)(a)n

Izenpetua:



Financiado por la Unión Europea
NextGenerationEU



GOBIERNO DE ESPAÑA
Plan de Recuperación,
Transformación y Resiliencia



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

V. ERANSKINA

FINANTZAKETA BIKOITZIK EZ DUELA DIOEN ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

_____ jaunak/andreak (NAN: _____),
_____ entitatearen titular/ordezkarari den aldetik (IFZ:
_____; zerga-egoitza:
_____), eta SEEPetik datozen
baliabideen hartzaile den aldetik _____
(deialdiaren izena) izeneko jardueraren esparruan, bere erantzukizunpean hau
adierazten du gai hauei buruz:

- Ez duela laguntzarik jaso Europar Batasuneko funtsetatik, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa (SEM) ezartzen duen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko (EB) 2021/241 Erregelamendukoaz bestelakoetatik, eta gero ere ez duela eskatuko aurrekontu nazionaletik edo EBtik hornitzen den beste edozein funtsek finantzatu dezan.

Jarraitu, aurreko baieztapenean laukitxoa markatu ez bada soilik, hau da, proiektuak beste funtsen baten finantzaketa jaso badu, edo etorkizunean jasotzekoa bada, helburu bererako:

- Konpromisoa hartzen duela laguntzak/dirulaguntzak arautzen dituzten oinarrietan ezarritako mugen barruan errenditzeko.
- Konpromisoa hartzen duela gastuen jarraipena egiteko, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren kudeaketa-sistema eratzten duen irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduaren 7. artikuluan xedatutakoaren arabera finantzaketa bikoitzik ez dagoela ziurtatzeko.
- Proiektuaren finantzaketaren trazabilitatea bermatzen duten mekanismoak eta kudeaketa-ahalmena badaudela.

- Konpromisoa hartzen duela, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Lege Orokorraren 32.5 artikulua araberako, finantzaketa bikoitzik ez dagoela egiaztatzeko justifikazio-agiriak aurkezteko.
- Honako datu hauek ematen direla:

DIRULAGUNTZA PUBLIKOAK: xede berberarekin beste administrazio edo ente publiko batek emandako edo hari eskatutako dirulaguntzak eta bestelako laguntzak			
Administrazioa edo ente publikoa	Xedea	Egoera	Guztira (€)
Eskatutakoa, guztira: _____ €		Emandakoa, guztira: _____ €	

_____ (e)n, 20____ (e)ko _____ aren _____ (e)(a)n

Izenpetua:

Kargua: _____



Financiado por la Unión Europea
NextGenerationEU



GOBIERNO DE ESPAÑA
Plan de Recuperación,
Transformación y Resiliencia

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

VI. ERANSKINA

SEEP-EKO JARDUKETAK BETETZEARI DAGOKIONEZ DATUAK LAGATZEKO ETA
TRATATZEKO ADIERAZPENA

..... jauna/andrea, edo hark ordezkaten duena (kontratista/onuraduna),
..... (IFZ:; zerga-egoitza:
.....), SEEPeko baliabideek finantzatutako
laguntzen onuraduna da, XX. osagaien («.....») zehaztutako helburuak
lortzeko behar diren jarduketak aurrera eramaten dituen kontratista/azpikontratista/onuraduna den
aldetik. Eta adierazten du ezagutzen duela aplikatzekoa den araudia; zehazki, Suspertze eta
Erresilientzia Mekanismoa ezartzen duen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko
otsailaren 12ko (EB) 2021/41 Erregelamenduaren 22. artikulua apartatu hauek:

1.– Bigarren apartatuaren d) letra: «Suspertze- eta erresilientzia-planaren barruan erreformak eta
inbertsio-proiektuak egiteko neurriei dagokienez, funtsen erabileraren auditoria eta kontrola
egiteko, datu hauen kategoria harmonizatuak biltzea, bilaketak egiteko aukera ematen duen
formatu elektronikoa batean, eta datu-base bakarrean:

- a) Funtsen azken hartzailearen izena.
- b) Kontratatzen eta azpikontratisten izena, funtsen azken hartzailea botere adjudikatzailerik
bat bada Batasuneko edo Estatuko kontratazio publikoaren arloko zuzenbidearekin bat
etorrita.
- c) Funtsen hartzailearen edo kontratatzen benetako titularren izen-abizenak eta jaiotegunak,
Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EB) 2015/849 Zuzentarauaren 3. artikuluko 6.
puntuaren definitutakoaren arabera (26).
- d) Suspertze-, eraldatze eta erresilientzia-planaren esparruan erreformak eta inbertsio-
proiektuak egiteko neurrien zerrenda, neurri horien finantzaketa publikoaren zenbateko
osoa zehaztuta eta mekanismoaren esparruan ordaindutako funtsen eta Batasuneko beste
funts batzuen zenbatekoa adierazita».

2.– 3. apartatua: «15. artikulua 2. apartatuak eta 23.aren 1. apartatuak aipatutako akordioak aplikatzeari lotutako funtsen erabileraren kontrol-prozedurei eta aurrekontu-kudeaketa onartzeari buruzko auditoria egiteko erabiliko dituzte soilik, eta horretarako behar den denboran soilik, Batzordeak eta estatu kideek artikulua honen 2. apartatuko d) letran aipatzen diren datu pertsonalak. Batzordearen kudeaketa onartzeko prozeduraren barruan, EBFTren 319. artikuluari jarraituz, Mekanismoak txostenak aurkeztu beharko ditu Finantza Erregelamenduaren 247. artikuluan aipatzen den finantzei eta kontu-emateari buruzko informazio bateratuaren esparruan, eta, zehazki, eta berezita, kudeaketari eta errendimenduari buruzko urteko txostenean».

Adierazitako esparru juridikoarekin bat, adierazten du onartu egiten duela datuak ematea eta tratatzea artikulua horietan berariaz aipatzen diren helburuetarako.

_____ (e)n, 20____ (e)ko _____ aren _____ (e)(a)n

Izenpetua:

VII. ERANSKINA

SEEP-EN ZEHARKAKO PRINTZIOAK BETETZEKO KONPROMISOA HARTZEKO
ADIERAZPENA

_____ jaunak/andreak (NAN: _____),
_____ entitatearen titular/ordezkari den aldetik (IFZ:
_____); zerga-egoitza: _____), eta
SEEPetik datozen baliabideen hartzaile den aldetik _____
(deialdiaren izena) izeneko jardueraren esparruan, bere erantzukizunpean hau aitortzen du gai
hauei buruz:

Lehenengoa.– Ordezkatzen duen entitateak arau juridiko, etiko eta moralak betetzearekin loturiko estandar zorrotzenen aldeko konpromisoa hartzen du, eta, horretarako, iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak prebenitzeko eta atzemateko behar diren neurriak hartzen ditu eta, hala badagokio, atzemandako ez-betetzeak dagozkien agintariei jakinarazten dizkie.

Bigarrena.– SEEPen edukia kontuan hartuta, ordezkatzen duen entitateak konpromisoa hartzen du ekonomia zirkularraren printzipioak errespetatzeko eta ingurumenari kalte nabarmenik ez eragiteko («DNSH», «do no significant harm» esapidearen ingelesezko siglak) plan horren esparruko jarduketetan.

Hirugarrena.– Ordezkatzen duen entitateak ez du finantzaketa bikoitzik, eta, haren ustez, ez dago arriskurik estatu-laguntzen araubidearekiko bateraezintasuna izateko.

_____ (e)n, 20 ____ (e)ko _____ aren _____ (e)(a)n

Izenpetua:

Kargua: _____

VIII. ERANSKINA

KONTROL-ESKUMENAK BERMATZEKO ESKUBIDE ETA SARBIDEAK EMATEKO
KONPROMISOA HARTZEKO ADIERAZPENA

_____ jaunak/andreak (NAN: _____),
_____ entitatearen titular/ordezkarari den aldetik (IFZ:
_____); zerga-egoitza: _____), eta
SEEPetik datozen baliabideen hartzaile den aldetik _____
(deialdiaren izena) izeneko jardueraren esparruan, bere erantzukizunpean hau aitortzen du gai
hauei buruz:

Izenpetzaileak adierazten du ordezkatzeko duen entitateak konpromisoa hartzen duela eskubideak eta sarbideak emateko hemen aipatzen diren erakundeek beren kontrol-eskumenak baliatzen dituztela bermatzeko, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko (EB) 2021/241 Erregelamenduaren 22.2.e) artikuluan eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018ko uztailaren 18ko (EB, Euratom) 2015/1046 Erregelamenduaren («Finantza Erregelamendua») 129.1. artikuluan ezarritakoarekin bat etorrira; hauek dira erakunde horiek: Batzordea, Iruzuraren aurkako Europako Bulegoa, Europako Kontuen Auzitegia, Europako Fiskaltza eta Estatuko agintari eskudunak.

_____ (e)n, 20____ (e)ko _____ aren _____ (e)(a)n

Izenpetua:

Kargua: _____

IX. ERANSKINA

SEEP-EKO JARDUKETAK EGITEKO KONPROMISOA HARTZEKO ADIERAZPENA

..... jaunak (1) /andreak, bere izenean edo
 (operadore ekonomikoa) ordezkatzuz (operadore ekonomikoaren IFZ:),
 zenbakiko espedientea duen lizitazio-prozedurari / dirulaguntza-deialdiari buruz

Lehenengoa.– Arau juridiko, etiko eta moralak betetzearekin loturiko estandar zorrotzenen aldeko konpromisoa hartzen du, eta, horretarako, iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak prebenitzeko eta atzemateko behar diren neurriak hartzen ditu eta, hala badagokio, atzemandako ez-betetzeak dagozkien agintariei jakinarazten dizkie.

Bigarrena.– SEEPen edukia kontuan hartuta, konpromisoa hartzen du ekonomia zirkularraren printzipioak betetzeko eta ingurumenari kalte nabarmenik ez eragiteko («DNSH», «do no significant harm» esapidearen ingelesezko siglak) plan horren esparruko jarduketetan.

Hirugarrena.– Ez du finantzaketa bikoitzik, eta, haren ustez, ez dago arriskurik estatu-laguntzen araubidearekiko bateraezintasuna izateko.

_____ (e)n, 20____ (e)ko _____ aren _____ (e)(a)n

Izenpetua:

¹ Operadore ekonomiko bik edo gehiagok batera aurkezten badute eskaintza, eta konpromisoa adierazten badute adjudikaziodun izanez gero ABEEa formalki eratzeko, operadore guztien ordezkariak sinatu beharko dute deklarazio hau.